



**Nafarroako
Gobernua**



**NAFARROAKO
BERDINTASUNERAKO
INSTITUTUA**

Izenburua:

Emakume ausarten bidea eta beste istorio batzuk

© AAVV. (Ana Ábrego Galilea. Arantxa Ibarrola Segura. Teresa Aranaz Jiménez. Pilar Irigoien Ostiza. Carmen Arrazola Lizaur. Pilar Mayo Falque. Ana Cañas Aparicio. Isabel Navarraz Fernández. Esther de la Fuente Robles. Teresa Osés Turrillas. Carmen Fabo Malo. Camino Oslé Guerendiain . Marisa Gabarain Iturgaiz. Margarita Zabala Baquedano. Victoria García Arlegui)

Argitaratzen du:

Nafarroako Gobernuak

Finantzatzen du:

Europako Gizarte Funtsak

Koordinazioa:

Carmen Arrazola Lizaur de (Imaginación) eta NBI

Marrazkiak:

Maitane Bernardo Eizagirre

Maketazioa:

Patricia Martiartu de Alfa Soluciones SL

Argitalpena eta zuzenketa:

Eulàlia Lledó Cunill

Itzulpena:

www.traduCCI.com

Imprimatzailea:

Gráficas Lizarra S.L.

Lege-Gordailu:

NA. 2.626/2008

Aurkibidea

Hitzaurrea

Egileak

Emakumeak ikusezinak?

Pentsa ezazu

Ipuinen bide ausarta: hamabost istorio

1. Ardi ausarta
2. Uso mezularia
3. Oso baratze berezia
4. Lanterna magikoa
5. Pago lepatua. Eguneroko berpiztea
6. Erriberako kimikaria
7. Nire globo kolorezkoak
8. Har emea tximeleta bilakatu zen
9. Printzesa gardenena
10. Saber a-mar
11. Eguzkiaren beroa
12. Ura iristen den lekuraino
13. Sostengatzen duen lurra
14. Basoko sorginak. Ekiteko sorginkeria
15. Hegaldi eskolak

Emakume ausarten bidea

HITZAURREA

Emakume ausarten bidea eta beste istorio batzuk ipuin-liburua baino gehiago da. Irakurtzen hasten zarenean, oso emakume desberdinak ezagutuko dituzu, ikasten, munduari eta inguruan duten guztiari begiratzen, beldurra ez izaten, egunerokoan topatzen diren zailtasun guztiei aurre egiten edo gauza ohikoenen edertasuna miresten jakin dutenak.

Ausartak dira guztiak, ausartak jakitunak izaten ikasi dutelako, besteak beste. Zuk ere egin dezakezu hori, zeure bidea egin dezakezu zuk, eta haiek baliatu dutena, haiek amestu dutena, euren enpleguek ekarritako esperientziak, inguruan dituzten pertsonak edota haiei kontatutako beste istorio batzuk erabil ditzakezu horretarako.

Ipuin bakoitza bakarra den arren, gauza bat dutela denok amankomunean antzemango duzu irakurtzen dituzunean: itzulera gabeko bidaiak egin dituztela protagonista guztiek, egun goi-erantzukizuneko lanpostuak izatea ahalbidetu dietenak enpresetan, elkarteetan, ikastetxeetan edo edozein motatako erakundeetan. Aukeratu haiek ibilitako bide horietatik guztietatik gehien interesatzen zaizuna, gehien erakartzen zaituena, eta egin ezazu hori zure zati bat.

Nire esker ona emakume haiei guztiei, euren bizitzen zati bat kontatuta, bide berdintsuagoak, orekatuagoak eraikitzea ahalbidetzen baitute. Benetako berdintasunerako zeharkaldia emakume ausartez beterik dago, eta euren ibilbideak eta jakituriak ez dira inoiz ere ikustezinak izan behar.



Mª Isabel García Malo

Familia, Kirol, Gazteria eta Gizarte Gaietako kontseilaria

EMAKUMEAK IKUSEZINAK?

Askotan ematen du emakumeak, ardura handiko karguak dituztenean, ez direla hain agerikoak. Ohitura handiagoa dugu emakumeak telebistan ikusteko ama izan direlako, edota egunkarian ikusteko ohiko gauzak egiten. Baina emakumeak langile, kirolari, musikari, artista, idazle, matematikari, enpresari... sutsuak dira.

Liburu honetan, karrera profesional bizia, interesgarria, ausarta... duten hainbat emakume agertzen dira, egin ditzagun agerikoak.

Ez inoiz ahaztu, emakume horiek hor bertan daude eta bideak irekiz doaz horietatik igaro nahi dutenentzat.

PENTSA EZAZU

Istorioen helburua da kontatzea zein modu desberdinetan emakume asko lan-mundua konpartitzen saiatzen diren, batera beraien bizitza pertsonala eta familia eduki nahi dutela. Lan-mundu horretan, kargu garrantzitsuetara iristeko, ardurak nahiz zuzendaritza karguak beregain hartzeko egindako ahaleginari balio handia ematen diote. Ahalegin horrek, bestalde, emakumeek oraindik gutxi esploratu dituzten bideetatik barna ibiltzera bultzatzen ditu. Eta lortu dezaketela, eta gainera, oso dibertigarria eta interesgarria dela uste dute!

Emakume horiek idatzitakoa irakurri ondoren ikasteko, ikertzeko, ahaleginak egiteko, adoretsua izateko eta dituzun ametsak egia bihurtzeko grina sortzen bazaizu, zein baino zein aseago utziko gaituzu!

Istoria bakoitzaren ostean, gustatuko litzaiguke irakurri duzunari buruz pentsatzeko denbora hartuko bazenu. Horretarako, ipuin bakoitzaren ondoren, zenbait galdera egongo dira eta agian (hala izatea espero dugu) hausnartzeko lagungarri suertatuko zaizkizu.

Ez dituzu derrigorrez ipuin bakoitzari dagozkion galderak erantzun behar (ez dira etxerako lanak), nahi dituzun ipuinenak irakurri ditzazkezu. Era berean, ipuin bakoitzetik gehien interesatzen zaizkizun gaiak aukeratu ditzazkezu: jakin-mina sortzen dizkizutenak, ulertzen ez dituzunak, edo errazenak (eta pentsatu zuzendariak zeintzuk aukeratuko lituzketen). Ipuina taldean irakurtzen baduzu, galderak denen artean erantzun ditzazkezuete. Ikastetxean irakurtzen badituzu, berriz, agian irakasleak hausnartzeko beste galdera batzuk proposatuko ditu.

*Emakume bakoitzaren karrera profesionala
datozen balaunaldiei bidea erakusten dien zeruko izar bat da.*

IPUINEN BIDE AUSARTA

Bazen behin hamabost zuzendarik osatutako talde bat. Emakume talde hori laneko kontuetaz hitz egiteko elkartu zen, eta haien artean ongi zihoazen gauzei nahiz gaizki zihoazenei buruz hitz egiten zuten. Izan ere, agindu baino, zuzendu nahi baitzuten, eta hori ez da beti horren erraza.

Bileretan denetarik egiten zuten: hitz egin, lan egin, konpartitu, batzuk besteengandik ikasi, ongi pasa eta elkarri ulertu. Bileren ondoren, ordea, bakoitza gertatutako guztia ipuin baten bidez azaltzeko gai izango ote zen galdetu zieten beraien buruei. Eta esan eta egin, lanean buru-belarri jarri ziren, eta hementxe duzue beraien ahaleginaren emaitza; izan ere, ahaleginik eta lanik egin gabe ez baitago ez ipuinik ez ezer.

Bakoitzak bere erara egin zuen, batzuek ohiko ipuinetako printzesa edo mota guztietako sorginak erabili zituzten, beste batzuk haurtzarora itzuli ziren, beste batzuk ipuinarekin batera heldu bilakatu ziren, eta animalia (bai lurretik dabiltzanak baita urrunera hegan egiten dutenak ere, bai txikiak baita handiak ere) edo landare bihurtu zirenekoak ere egon ziren. Baina guzti hori egia bihurtzeko, batzuk izar bilakatu ziren, beste batzuk ur geza, itsaso eta lur; besteek liburuak irakurri zituzten eta ikasi egin zuten eta globo bilduma egin zutenekoak ere egon ziren. Denak, ordea, hazten joan ziren beraien ipuina hazten zenarekin batera. Horretaz gain, azaldu digute bakarrik ezin izango zutela egin eta denek norbaitetaz ikasi zutela.

Batzuek ipuina idazteko denbora gehiago behar izan zuten, beste batzuek gutxiago, bateren bati lotsa ematen zion, besteari oraindik lotsa handiagoa, beste batek pentsatu zuen ezingo zuela egin, baina denek, salbuespenik gabe, konfiantza izan zuten, eta ausartu egin ziren. Hementxe dituzue lan horren fruituak eta emaitzak.

Ardi

ansarta



Curriculumma

Ana Ábrego Galilea

Iruña, 1959.

*Hiru ahizpatan gazteena. Orain bere ama
Mariarekin bizi da. Mariak 86 urte ditu.*

*Industriako ingeniari teknikoa
Zaragozako Unibertsitatean.*

*Musikarako sentsibiltate handia
dauka; gitarra eta pianoa jo eta poesia
errezitaldietan poemak deklamatzan ditu.*

*Prestakuntzako teknikari gisa ari da Nafarroako
Industria Elkartean eta laguntza ematen
dio Giza Baliabideen Departamentuko
arduradunari, ekonomia aferetan.*

Istorio hauetako egileek modu asko erabili dituzte beren bizitzan berri emateko. Jarraian datorren istorio honetan, izeba bat eta bi iloba izango dira probetxuzko paseo bateko protagonista. Eta ipuinaren bideetan, beharbada, ardiek nahi dutena egin ahal dutela ikustea da garrantzitsuen, bide bat baino gehiago, interes bat baino gehiago, dagoela ikusi ahal dutela. Ea zer iruditzen zaizuen.

Uda hasierako egun zoragarria zen. Ez dut gogoan zehatz-mehatz zein egun zen, baina badakit ilobek eskolak amaitu zituztela eta aztoratuegi zeudela aurretik zituzten oporrak zirela-eta etxean geldirik edukitzeko.

- Joango al gara mendira paseatzera?-galdetu nion Ainhoari.
- Bai, mesedez... -egin zuen oihu gogo beroz- Ziur asko Amaiak ere etorri nahiko du.

Esan eta egin. Amaia ere etorri zen paseatzera.

Mendiz eta larrez inguratutako herri txiki batean bizi ginenez, laster utzi genituen atzean etxeak, lastategiak, eta elizako kanpandorrea ere laster ostendu zen basoko sasien artean.

Bat-batean, Amaia gelditu egin zen, eta isilik egoteko eskatu zigun.


- Isilik! Zerbait entzuten dut! Ardiak dira! Goazen ikustera, bizkor!

Bizi-bizi, marraken soinuak gidaturik jarraitu genuen. Basoaren muga, larre batean, ekaineko eguzki izpi beroen pean, tapaki zuri eta horixka trinkoa ikusi genuen. Berrehun bat ardi izango ziren, denak pilatuta zeuden, ez ziren ia mugitu ere egiten edo pixka bat jasotzen zuten burua.

- Goazen, harri horien gainean eseriko gara -esan zuen Ainhoak, handik gertu zegoen harkaitz bat erakutsiz-. Ardiak nola bazkatzen diren ikustea eta egiten dituzten soinuak entzutea gustatzen zait.

Handik gutxira, ardi bat artaldetik bereizi zela eta beste larre baterantz zihoala ikusi genuen. Pauso ziurak eta zalantzarik gabeak ematen zituen ehunka urte zituzten zumarrek gerizpean zuten larre hartarantz. Ziur asko, han zegoen belarra askoz ere leunagoa, freskoagoa eta hezeagoa izango zen.

Ezerezetik atera balitz bezala, artaldea zaintzen zuen zakurra beste larre batzuetan bazkatu nahi zen ardiaren atzetik joatera behartu zuen artzainaren ahots lodi eta zakarrak. Korrika abiatu zen, zaunkaka, izugarri ahaleginduz, baina ardia ez zen gelditu eta ez zuen artaldera itzultzeko asmorik agertu. Burua pixka bat biratu zuen, eta orduan iruditu zitzaidan hasi zuen hori burutzeko erabakitasun eta ausardia handia erakusten zutela haren begiek. Pentsatu nuen agian ez zela izango saiatzen zen lehenbiziko aldia eta gogoz nahi izan nuen zumarren gerizpera hel zedila.



- Izeba, zakurrak hozka egingo dio!
-oihukatu zuten izututa ilobek.
- Lasai. Ez da ezer gertatuko. Bere lana da.
Ez dio minik egingo. Ez ezazue oihurik egin!
Eta egon zaitezte geldirik! Ikus dezagun
zenbateraino den ausarta ardi hori!
- Izeba, gerizpera iritsiko dela uste duzu?
-galdetu zuen Amaiak nahigabetuta.
- Hartu duen erabakiaz ziur badago bakarrik
iritsiko da; gainerakoan, atzera egingo du
eta beste batean saiatuko da berriro. Edo,
beharbada, ez da inoiz gehiago saiatuko.
Batek daki zer pentsatzen duten ardiek!

Hirurak oso geldirik eta isilik gelditu ginen, gertatzen
ari zenari behatzen. Eta zakurrak masalezurrak ireki

zituenean ardiaren atzeko hanken parean, artaldeko
beste ardi batzuk zutitu zirela eta ardi ausartaren
norabidean zihoazela ikusi genuen. Beste ardi batzuk
mugitu zirela ohartu zenean, zakurra nahasirik gelditu
zen, eta masalezurrak itxi zituen, ez baitzekien zein
ardi eraman artegira.

Ardi ausartak oinez jarraitu zuen, astiro,
erabakitasunez, une bakar batean ere helburua galdu
gabe, atzean gertatzen ari zenari kasu gehiegirik egin
gabe, baina, aldi berean, gainerako ardiei marraka
samurren bidez deitzeari utzi gabe.

Lehenbizi bat, gero bi eta azkenean zortzi bat ardi
zenbatu nituen zuhaitz bikain haien gerizpe freskoan
bazkatzen.

Isiltasuna nagusitu zen berriro mendian, zakurrak etsi
egin zuen eta basoko gaztainondo baten gerizpean
etzan zen. Artzainak, zakurraren ondoan, ahots
nekatuarekin, honako hau murmurikatu zuen: «Jan
dezatela nahi duten belarra, ez dut inolako hesirik
ikusten belardi horretan».

Barnetik barre egin nuen. Gogora etorri zitzaidan
zenbatetan entzun izan nion herriko jendeari ardi
guztiak tentelak direla esaten. Udako egun hartan,
ilobekin, huts horretaz jabetu nintzen: kontua zen
artzainaren ahotsari eta zakurraren zaunkei men
egiten ohituak zeudela.

Illobak besarkatu nituen
eta, bizkarreko zorroan



nuen ura eskainiz, irribarre batekin, honako hau galdetu nien:

- Zuen ustez, zein dira ardi zoriontsuagoak: edo denak elkarrekin eguzkipean gelditu direnak, edo zumarren gerizpera iristea lortu dutenak?

Amaiak, bietan txikienak, begiak zabal-zabalik zituela, hau esan zuen:

- Zeinen galdera arraroak egiten dituzun, izeba. Halere, oso ongi pasatu dut. Itzuliko al gara etxera? Gosetu naiz-eta.

Ile motza nahasi nion eta musu bat eman. Izan ere, nire ama ekartzen zidan gogora...!

Zertxobait zaharragoa, hamaika edo hamabi urte izango zituen, Ainhoak oso serio erantzun zuen, esan beharrekoa garrantzizkoa zela uste zuenean egin ohi zuen moduan:



- Nire ustez, denak era berean dira zoriontsu.
- Zergatik?
- Ardi guztiak daudelako nahi zuten lekuan. Batzuek gerizpera joan nahi zuten eta ez zaie batere axola izan zakurrak zaunka egitea. Orain bai artzaina eta bai zakurra lo daude. Beraz, gainerakoak ez badira joaten... eguzkipean ongi daudelako izango da...

Eta hala zen, ardi bakoitzak aukeratu zuen non egon nahi zuen.

Pentsakor gelditu nintzen, atzealdean ardien marrakak entzuten zirela. Orduan konturatu nintzen nire bizitza ardi ausartarenaren antzekoa izan zela. Ez ezazue pentsa nire ametsa belar freskoa jatea zela...! Baina borroka egin behar izan nuen eta erronka askori egin behar izan nion aurre egun nagoen leku honetara iritsi ahal izateko. Atzera egiten dut eta gogora datorkit nire lehen lana: emakume bakarra nintzen gizonen mundu batean, ingeniaria. Orduan ez ziren emakumeentzako ikasketak, baina, halere, ikasi, borrokatu, negar egin eta nire beldurrak gainditu nituen. Gaur, ilobei begiratzen diet, eta bihotz-bihotzetik nahi dut beren idealen eta ametsen alde lan egiteko gauza izan daitezela.


Zutitu nintzen, ur botila hutsa zorroan sartu nuen, eskua eman nien eta etxerako bidea hartu genuen. Berandutu egin zitzaigun eta eguzkia ezkutatzen ari zen ostertzean. Laster, itzalak basoa estaliko zuen.

Ana Ábrego Galilea



Uso

mezularia



Curriculum

Ana Cañas Aparicio

León, 1967.

Bost senidetan laugarrena.

*Senarrarekin bizi da eta Mariaren eta
Paularen ama da.*

*Enpresa Zientzietako lizentziaduna Madrilgo
Unibertsitate Autonomoan.*

*15 urte aritu da proiektuen kudeaketarekin lotutako
arduradun lanpostuetan.*

*Abaigar Sustapena eta Eraikuntza Taldean
Zuzendaritzako Alboko gisa dihardu.*

Istorio honetako protagonistak ez dira izeba eta bi ilobak, ez eta emakume bat ere, baizik eta uso bat. Agian irakatsi nahi digu nahiz eta hegorik ez izan hegan egin ahal dugula, eta, nahiz eta zumarren eta ardien artean badiren bideak, zeruan ere badirela ikusi eta egin ahal diren bideak. Hodeien eta izarren artean dauden bideak dira.

Uso mezulari jaio nintzen Leongo baso bateko habia batean, eta txikitatik irakatsi zidaten ogibide hura.

Amak honako hau esaten zigun: «Edozein gauzatan ona izatea zaila da, eta prestakuntza handia eskatzen du...». Horregatik, urte mordoa eman nuen neure burua prestatzen mezulari ona izateko.

Prestakuntza prozesu horretan, mezu bat uzten dugun bakoitzean etxera itzultzen laguntzen digun barneko iparrorratz misteriotso hori garatzen ikasi behar nuen. Askotan joan behar izan nuen beste hegazti handiago batzuekin hegan egitera, airebideetan norabidea izan nezan erreferentzia puntuak hartzen ikasteko. Kontuan izan behar duzue usook ez dugula GPSrik! Eta gainera, giharrak landu behar nituen, eta hegan egiten ordu asko eman behar nituen askatasuna eman ziezadaten...

Leonen hotz handia egiten du neguan, eta habiako hegazti nagusiak lanera irteten zirenean, mendietako haizeak izoztu egiten zituen, elur usaina itsatsirik gelditzen zitzairen hegaletan hainbat astean eta egun mordoa behar zuten berriro ere pixka bat berotzeko.

Nik, ordea, neure burua babestuta, eroso, ikusten nuen, baina zerbait falta zitzaidan; jolasean ibiltzeko erabiltzen genuen etxarte txikia zen. Beraz, ez nekien inoiz bidaia luze bati ekiteko gauza

izango nintzen. «Oiletegiko oiloa dirudit horrelako hegaldi laburrak egiten!», esaten nien gainerakoei.



Egun batean, hegoaldetik, hau da, airea beti epelagoa den lurralde hartatik, etorri zen uso baten bisita izan genuen.

Lur lauago batzuei buruz mintzatu zitzaigun, hainbeste mendirik ez zuten lurrez, beste kolore eta usain batzuk zituzten lurrez. Eta hitz haiek nire jakin-mina piztu zuten.


Gogoan dut hain saiatuki eta hertsatuki erabaki nuela hazteko bidea emango zidaten beste lur batzuetara joatea, ezen egun batean usategi hartako hegazti guztiek babestu zuten Madrilera joatea nire habiaren bila. Izan ere, hiri handi batek aukera berriak eta hobeak emango zizkidala uste osoa nuen.

Zinez hitz egin behar badut, esan behar dut uste nuena baino neketsuagoa izan zela bidaia: eguzkiaren kokalekua deskodetzeko edo lurraren eremu magnetikoa deszifratzeko nuen gaitasun ezagun hark, zenbait unetan, huts egin zidan.

Haize boladak oso zakarrak zirenean ere ez nintzen gai izan norabideari jarraitzeko, eta inork ez ninduen babesten atseden hartzera gelditzen nintzenean.



Esan zidatena baino askoz ere urrunago zegoen Madril! Zenbaitetan atzera egitea bururatu zitzaidan, baina pentsatu



nuen oztopo haiek inoiz liburuetan ikasi ez nituen gauza berriak ikasteko aukera ematen zidatela.

Egoerak ez ziren errazak izan. Etxeak oso garaiak zirenez, beti kutsadura hodeien artean egin behar izaten nuen hegan.

Askotan hegazkin erraldoiak, keak, mota guztietako hotsak aurkitzen nituen, eta horregatik, nire lehenbiziko habia independentea beste hegazti batzuekin partekatu behar izan nuen.

Hori ere ez zen erraza izan. Izan ere, ordura arte mezulariaren ogibideari zegokion guztia ikastea jarri nuen arreta, eta bizirik irauteko lanak alde batera utzi nituen. Ez nekien habia garbitzeko lanak egiten, bazkaria prestatzen, hegaletako lumak nola zaintzen ziren. Leonen bizi nintzenean, aita eta ama egiten zuten hori guztia. Ondo gogoan nuen bai!

Hori dela eta, Madrilen ikasi behar izan nuen aurreneko gauza neure kabuz baliatzea izan zen, benetan independente izatea.

Kide lagun bat aurkitzeko zorte izugarria izan nuen, eta, elkarrekin egiteko gai ikusi genuenez geure

burua, geure habia egitea eta berehala usakumez betetzea erabaki genuen.


Baina arrautzak ez ziren guk nahi bezain azkar iristen. Argi zegoen hainbeste mezu eta bidaiak estresatu egiten gintuela; horregatik, polikiago hegan egitea eta bidaia gutxiago egitea erabaki genuen. Orduan, lehen usakumetxoa laster heldu zen.

Eta honako hau erabaki genuen: aldi batean nik zainduko nuen habia eta nire kideak mezuak eramango zituen. Beste modu askotara egin genezakeen, baina hori iruditu zitzaigun egokiena.

Nahiz eta onartu behar dudan zoragarria izan zela aurreneko usakumetxoa hazten ikustea, egia ere bada pentsatu nuela ez nintzela sekula izango lehen izan nintzen uso mezularia.

Entrenatu gabe nengoen, ez nuen gogoan nola funtzionatzen zuen nire nabigatzeko iparrorratz zoragarriak, ez eta ogibide horretarako funtsezkoak ziren beste gauza batzuk ere.

Egun batean, uso jakintsu baten bisita izan nuen. Egiazko maitagarri bat zen, eta nire gaitasunei buruz mintzatu zitzaidan: nire hegoak sendoak ziren, norabidea aurkitzeko zentzumen izugarria nuen, teknika bikaina nuen. Era berean, bizitza osoan neure burua





prestatzen aritu nintzela gogora ekarri zidan; beraz, ezinbestekoa zen mezuak eramaten jarraitzea.

Habiari kasu egin, janaria aurkitu eta hegan egitera ateratzeko gai ziren beste hegazti askori buruz hitz egin zidan.

Bere hitzek berriro ere neure buruagan konfiantza izan nezan egin zuten. Arrazoi zuen!

Banekien hirietan hegan egiten, koordinada zailak aurkitzeko gauza nintzen, lehenago iristeko lasterbideak aurkitzeko gai ere banintzen. Eta, gainera, bizi izandako esperientzien ondorioz, mezu zoragarriak eraman behar nituen. Zailtasunak gainditzeko mezuak, aukeren artean hautatzen jakitekoak eta erronkak bilatzekoak.

Hori guztia sinetsita, beste habia bat egin genuen Iruñean, eta jada lau uso gara.

Orain dudan lanean, habia desberdinetara hegan egitera joaten naiz eta geroz eta zailagoak diren bideak aukeratzen ditut. Horrez gain, beste uso batzuei hegan egiten irakasten diet, eta, azken lanean, beren hegaldiak ere antolatzen ditut.

Arreta handiagoarekin
entzuten didatenei
nik ikasitako

guztia kontatzen diet: uso bakoitzak bere zoria eta une bakoitzean hegan egiteko modua aukeratu ahal du, eta ez da ezer gertatzen hainbat modu saiatzen badira, bizitza oso luzea baita eta hegan egiteko modu askotarako aukera ematen baitu. Eta, beharrezkoa bada, gelditzeko aukera ere ematen du.

Are gehiago, uste dut uso bakoitzak egin beharko lukeela, hegan egiteko modu desberdinak, norabide aldaketak eta abiadura desberdinak saiatzen ahalegindu beharko lukeela; hartara, eskarmentu handiko uso izatera iritsiko baita.

Egiten ditugun lan desberdinek eta erantzukizuneko lanpostuek horretarako bidea ematen digute: hegan egiteko modu desberdinak saiatu ahal ditugu eta gero ikasitako guztia besteei irakatsi ahal diegu. Beste uso batzuek ikasiko dute: hegan egiten ikusten digutenek eta kontatutakoa entzuten dutenek.

Ana Cañas Aparicio



Irakurri eta berrirakurri

Txikitan, zein aholku ematen zion amak?

Zergatik joan zen Madrilera?

Zer esan nahi du honako hau esaten duenean: «Egoerak ez ziren errazak izan. Etxeak oso garaiak zirenez, beti kutsadura hodeien artean egin behar izaten nuen hegan»?

Zer ikasi zuen Madrilen? Nor etortzen zitzaion gogora?

Denbora batean mezulari izateari utzi zion ipuineko usoak, eta usakumeak zaintzen gelditu zen etxean. Zein beste eratara haziko ziren gainerakoan usakume horiek?

Zerk bultzatu zuen hegan egitera/lan egitera?

Zein trebetasun ditu ipuineko usoak?

Aurreko ipuinean ikusi dugunez, ardiek gauza bat baino gehiago egin ahal dute. Ipuin honetan antzekorik esaten al du usoak?

Zer uste duzu adierazi nahi dizula istorio honek?

Oso baratze berezia.
Tomate artean
irakurtzen.



Curriculum

Arantxa Ibarrola Segura

1965 / 12 / 04

Datu akademikoak :

Hezkuntza Zientzietako lizentziaduna
Salamancako Unibertsitatean. 1983-1988.

Psikologiako lizentziaduna Euskal
Herriko Unibertsitatean. 1988-1991.

Doktoretza ikastaroak Gizarte
Antropologian. UHUN. 1994-1997.

Prestakuntza beharren hautematea eta
prestakuntzako jarduerak antolatzea. 500 ordu.
Intefor S.A. eta Madrilgo Erkidegoa. 1990

Lanbide esperientzia:

2008: Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle
elkartua. Laneko eta Erakundeetako Psikologia.

1996tik honaino: Nafarroako Enpresa eta
Berrikuntzarako Europako Zentroa, S.A.
(CEIN, S.A.) sozietateko Sustatzaileentzako
departamentuan Kudeaketako teknikari seniorra.

1994-1995: teknikari La Productora S.A.n:
Lanbide eta Lan Orientazioko Zerbitzuko
arduraduna Azkoien aldean, Nafarroako Gobernuako
Gazteriaren eta Kirolaren Institutuko Orientazio
Programaren barrenean: Bakarkako aholkularitza
eta jarraipena orientazioa eskatzen dutenei.
Taldeen prestakuntza (programazioa, irakastea,
material didaktikoa prestatzea eta ebaluazioa).

1991-1993: Prestakuntza departamentuko teknikari,
Prestakuntzarako eta Gizarte Ikerketarako
Institutuak (IFES) Madrilen duen egoitza nagusian.

1990-1991: INTEFOR S.A. Giza Baliabideetako
aholkularitza enpresako teknikari, Madrilen.

Lehenbiziko ipuinean mendira joan diren iloba batzuk izan ditugu, eta bigarrenean uso bat.

Oraingo honetan, berriz, neskato bat da protagonista, biziaz beterik dauden tomate berezi eta gozo batzuk oso gustuko dituen neskato bat. Baratzean egotea -lehenbiziko ipuineko neskei mendira joatea bezala- oso lagungarri izango zaio bizitzan, eta, beharbada, zenbaitetan, bertan dagoenean, itxura batean nora ezean dabilen uso lanpetu bat ikusiko du zeru urdinean.

Hautzaroa herri txiki batean igaro nuen.

Etxe handi eta karratu batean bizi ginen. Erdiko patioan gurasoek baratze bat landatu zuten, denborak aurrera egin ahala berde eta hostotsu egin zen baratzea. Gero, nire babesleku eta jolasgune bihurtu zen.

Baserriko neskatoa izan nintzen, eta horrek esan nahi du naturaren ziklo miragarria ezagutzen nuela... edo, behinik behin, hori uste nuen nik!

Udaberrian, zuhaitzetan lehen kimuak agertzen ziren eta txoriak habiak egiten hasten ziren adarren artean.

Ekainaren hasiera aldera, berde distiratsu koloreko lehen letxugak, aurrerratu ziren tomateak eta lehen marrubiak ateratzen ziren, batzuetan hartxo bat izaten zutenak.

Uda amaieran, sagarrak, pikuak eta auzoko mahats parra zaharreneko mahatsa -bueno, ez bagenuen kontuan hartzen aitona-amonen etxeko mahats parra- jateko prest, erraz, egoten ziren.

Izugarri gustuko nuen orduak eta orduak ematea barazki eta zuhaitz ilara artean ibiltzen, handik eta

hemendik hartu eta mokadutxoak jaten. Eta nirekin batera ibiltzen ziren txoriak eta katuak, jateko zerbait aurkitu nahian, nahiz eta nire ama bere onetik ateratzen zen.

Baratzean bazen nire gogokoena zen txoko bat: haizetik babestua zegoen, udaberrian eguzkiak jotzen zuen eta udan mahats parrako hostoek babesten ninduten eguzki errainuetatik. Txoko horretan, betidanik gustukoena izan dudana egiten nuen: irakurtzen aritzen nintzen.

Babeslekura egiten nuen bidean, beti erritu berbera egiten nuen: lehenbizi, poltsikoetan tomateak, marrubiak, pikuak edo une hartan jangarri zegoena sartzen nuen; gero, nahikoa hartu nuela iruditzen zitzaidanean, txokora joaten nintzen; eta azkenik, etzaulki zahar batean esertzen nintzen.

Etzaulki marraduna zen, pixka bat saretua zegoen, baina oraindik hamar urte inguruko neskato argal baten gorputzari eusteko gai zen.



Ekain bukaerako egun batean, herriko gainerako neska-mutikoak San Joan surako egur eta paper bila zebiltzanean, betiko tomateen artean pinporta berria ikusi nuen; liburuxka itxura zuen pinporta, hain zuzen.


Abuzturako, zuhaixkak sei liburu eder zituen. Eta nik natura ezagutzen nuela uste nuen!

Ez nuen sekula halakorik ikusi.

Hura, benetan, leku liluragarria zen!

Pertsona helduen artean ezkutatuta eta bakarrik udako arratsaldeetan izaten den isiltasunak inguraturik, baratzeko liburuak irekitzen nituen eta abentura izugarrietan murgiltzen nintzen. Abentura amaigabeak ziren, ezinezko izakiekin egindako bidaiak... Familiako norbait deika ari zitzaidala entzuten nuenean bakarrik ohartzen nintzen ilundu egin zuela, begietako mina nuela eta, beste behin ere, aseta nengoela eta ezin izango nuela afaldu... ama haserretzen bazen ere.

Uda luze haietan, eta **tomate landare liburuzain** hari esker, erresuma bitxi batzuetako printzesa eta are bitxiagoak ziren beste batzuetako esklabo izan nintzen; edabe magikoak edan nituen eta zorigaitz eta sorginkeria ugari egin zizkidaten; esploratzaile bihurtu nintzen eta oihanak, aintzirak eta, niretzat eta nire bidaldiko kideentzat izan ezik, gainerako guztientzat ezezagunak ziren animaliak aurkitu nituen; zientzialari handia izan nintzen eta gaixotasun latzak sendatu zituzten botikak asmatu nituen; kontinente guztietara bidaiatu nuen eta Patagoniako glaziarrek ezagutu nituen, Kongo ibaian gora egin nuen balduta



zegoen mediku baten bila, munduaren iparraldean aurora polarra ikusi nuen, Indian sugeak xarmatu nituen, Australiako basamortuetan kanguruekin saltoka ibili nintzen eta Maud erreginarene lur izoztuan ibili nintzen. Eta hori guztia baratzetik mugitu gabe, txokotik atera gabe, baina beti izan ditudan lagun onenei esker: liburuak.

Lagun on horiek nirekin jarraitu dute bizitza osoan, eta, etxeko baratzea desagertu egin bazen ere, beti izan dut bakarrik egoteko eta irakurtzen aritzeko txoko magikoa.

Unibertsitatean, liburuek zientzialari egin ninduten eta giza garuna aztertu nuen.

Beste liburu garrantzitsu batzuek kultura asko aztertzer eta ezagutzera bultzatu ninduten.

Lanean, liburuek arriskuak hartzer eta sortzaile izatera bultzatu naute. Izan ere, horietan irakurri baitut niretzat eredu garri izan diren pertsonen zernolako bizimodua izan eta lana egin duten.

Orain artean lanean izan ditudan lanpostu guztietan arduratsuagoa izaten ere irakatsi didate liburuek -eta bai dibertigarria ere-

Eta aurrerantzean ere nirekin izango ditut. Ikasi ahal izateko, liburuak jakintza iturri direlako; gozatzeko, pozbide, dibertsio eta lagun direlako; eta zergatik ez, kontatzeko, bi eskuekin ireki ahal den leihoa delako.

Arantxa Ibarrola Segura



Irakurri eta berrirakurri

Ba al du familiarik neskato honek?

Zenbat urte ditu protagonistak?

Zer zuen gustukoena baratzean? Zergatik uste duzu gustatzen zitzaiola hainbeste bertan egotea? Ona dela iruditzen al zaizu tarte batean bakarrik egotea?

Zein gauza eta pertsonaia izan zen liburuei esker? Zein herrialdetara joan zen?

Zertarako balio izan diote liburuek? Zertarako balio izan diote lanean? Eta zuri, zertarako balio dizute?

Zerk eman dizu atentzioa liburu honetan?



Lanterna magikoa



Curriculum

Camino Oslé Guerendiain

Iruñean jaioa, 1944an.

Politikaria

*1979 - 1991. Iruñeko Udaleko
zinegotzia (1979-1987).*

Foru parlamentaria (1986-1991)

Lanbidea

*Gizarte-langilea, Pedagogiako doktorea
eta Gizarte Gerontologiako masterra.*

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

*Eskola Zuzendarien Konferentziako eta
Gizarte Laneko Saileko burua.*

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte
eta Kultura Proiektzioarako errektoreordea.*

Familia

*Dibortziatua, egun (25 urte) badu izatezko
bikotekidea, hiru ume eta bi biloba.*

Aurreko ipuinetan, lagun artean paseatzea gustuko zuten neskatoak ikusi ditugu eta bai bakarrik egotea, tomateen zaporea eta liburu artean egotea gustukoago zuen beste bat ere. Mezuak eraman eta eraman zebilen uso bat zeruan. Jarraian datorren honetan beste neskato bat izango dugu protagonista, bizilagunak oso gauza garrantzitsua irakatsi zion neskatoa.

Gerraondoan Iruñean bizi zen neskato baten istorioa kontatu behar dizuet. Ziur nago garai hori urruna eta ezinezkoa izango dela zuentzat, baina egiatan existitu zen eta nik neuk kontatu ahal dizuet, jeanak jantzita ditudan honek eta neure burua erne, arin... eta oso benetakotzat dudan honek.

Zortzi anai-arreba zaharragoek, aitak, amak... eta etxeke bizilagunek osatzen genuen familia.

Laugarren solairuan bizi ginen, eskuinean. Gainean, Gomez familia bizi zen, behean, Pepita andrea; eta ezkerrean Luzia andrea.

Familia gehienak oso handiak izaten ziren, eta horregatik eskaileran jende ugari ibiltzen zen sartu eta atera. Gainera, denek egiten zioten kasu elkarri, denek hitz egiten zuten elkarrekin eta denak aritzen ziren txutxu-mutxuan.

Guretzat Luzia **ondokoa** zen. Etxea hutsik bazegoen (oso gutxitan gertatzen zen), berari uzten genizkion enkarguak, eta gurekin bazkaltzen zuen igandero.

- Oso bakarrik dagoelako, esaten zuen amak isil-isilik.

Luzia andrea eta biok oso ongi moldatu ginen berehala. Berak igandero ipuinak, istorioak,

eleberriak... edo abentura liburuak ekartzen zizkidan, eta ez zen gelditu nigan irakurzaletasuna piztu zuen arte.

Txikitan, gogokoen nuen idazleetako bat Conan Doyle zen, Sherlock Holmes detektibe ospetsuaren egilea.

Eleberrietako bat ekarri zidanean, Luzia oso zaharra zen, baina burua oso argi zuen eta gomendatu zidan bizitza honetan Sherlock Holmes bezalakoa izan behar dela. Izan ere, hiltzailea nor zen jakiteko arrasto gakoak ikusteko gai zen beti, xehetasun txikienei erreparatu eta beti asmatzen baitzuen.

Nik galdetzen nuen ea gaitasun bereziak zituzten begiak zituen Sherlockek, edo, gainerakoan, ikusezina ikusten laguntzen zion lanterna magikoa... eta orduan Luziak honako hau esaten zidan: «Ez duzu ikusezina bilatu behar, baizik eta **behatu gabe dagoena**».

«Gauza asko hor daude prest aurkitu ditzazun, zure argiarekin argitu besterik ez dituzu eta ikusi egingo dituzu».

Eta irakaspen hori nire bizitzaren motorra bihurtu zen.

Igande batean ez nuen Luzia ikusi eta ez zen etxera etorri bazkaltzera.

- Erruki etxean dago -esan zuen amak.





- Zer da hori?- galdetu nion.
- Laguntza behar duten pertsona helduak joaten diren lekua da.

Erruki etxeko helbidea idatzi nuen eta eskolatik jai nuen arratsalde batean bisitan joatea erabaki nuen.

Han zeuden beste pertsona zahar batzuk ikusi nituen lorategian. Eguraldi atsegina genuenez, batzuk paseoan zebiltzan eta beste batzuk berriketan, bankuetan eserita. Beste batzuk, berriz, osasun arazoak zirela eta barnean gelditu ziren.

Burugaineko zuri handiak zituzten mojak zeuden han. Horietako batek irribarre egin zidan, eta Luziaren berri jakiteko galdetu nion.

- Luzia zer...? -esan zidan.
- Ez dakit, hemengoa da, Iruñekoa...

Ordu laurden edo igaro zen, ordu laurden luze-luzea, begira-begira nuen jende haren artean... eta bat-batean Luzia agertu zen.

Auzoan bizi zenean baino zaharragoa eta goibelagoa iruditu zitzaidan.

Ezin izan nien malkoei eutsi.

Berak zapi zuria atera zuen eta oroigarri gisa eman zidan.

- Ez zaitetz kezkatu, ez nago gaizki. Jaten ematen didate, jaikitzen laguntzen didate... mojak ongi portatzen dira nirekin.
- Baina zergatik ez daude beren etxeetan, familiekin?

- Hori zuk zeuk aztertu beharko duzu. Sherlock Holmesen eskuargiarekin argitu eta etxe horietan zer gertatzen den jakin beharko duzu. Lan zoragarria duzu egiteko.

Luzia hil egin zen, eta bere eta adineko pertsona guztien omenez zaletasun ikertzaileari ekin nion.

Gauzak aurkitzeko begiratu egin behar da. Inguruan dugun horri arretaz eta jakin-minez begiratu behar diogu, eta geure buruari zergatia galdetu behar diogu. Eta horrela hasi nintzen, etxe hauek hemen edo beste herrialderen batean jaio ote ziren galdezka neure buruari. Eta arrasto bati jarraituz, Italia, Portugal eta Frantziara joan nintzen. Jakin ahal izan nuen erruki etxeak Italiako Florentzia hirian jaio zirela, orain dela urte asko izurrite izugarria izan zutelako eta jendea erremediorik gabe hiltzen zelako. Orduan, pertsona on batzuek kalean hiltzen zirenak lurperatzen zituzten. Hori guztia liburu zirraragarri batzuetan idatzi zuen eskribau batek: idazkera zoragarria harekin testuak eta izen-abizenak idatzi zituen oraingo hizkuntza honetatik oso desberdina den batean.

Begiratzen, behatzen, ikasten duzunean, gauzek interesa sortzen dizutenean dena askoz ere dibertigarriagoa da. Gauzen izena eta zertarako balio duten jakin nahi duzu. Gauza batzuk zergatik diren horrelakoak eta beste modu batekoak izaterik ba ote duten galdetzen diozu zeure buruari. Esate baterako, erruki etxeak non izan ziren irakurtzen ari nintzen liburu zaharrak beti gizonek idatzitakoak ziren. Orduan berehala, honako hau galdetu nion neure buruari: andreek ez al zekiten idazten edo ez zieten uzten?

Eta, jakina, bi gauzak gertatzen ziren. Denbora askoan, eta ni txikia nintzen arte, neskatoak gutxiago joaten ziren eskolara, ez zutela ikasi behar uste zelako. Izan ere, beren lana etxean gelditzea eta familiako gainerako kideak zaintzea izango zela uste zen. Hori jakiteak beldurtu egin ninduen, eta aztertzen jarraitu nuen. Andreek, andreak izateagatik besterik ez, gizonek baino askoz ere gauza gutxiago egin ahal zituzten mundu osoan. Zenbait tokitan ez dira etxetik irteten, ezin dute dirua irabazi, bidaiatu, ikasi eta, azken batean, beren bizimodua erabaki.

Hori ez nuen gogoko, ez zitzaidan ongi iruditzen eta gainera egoera beste modu batekoa izan zitekeela ziur nengoen. Orduan plan bat jarri nuen martxan. Nik gauza asko egin nahi nituen, eta egin egingo nituen, inork ez zidan debekatuko egitea.

Interesa sortzen zidana ikasi nahi nuen. Agintzen den lekuetan egon eta parte hartu nahi nuen. Izan ere, gauzak alda daitezzen eta pertsona guztiek eskubide berberak izan ditzaten egin daiteke leku horietan.

Bidaiatu, mundua ezagutu, beste pertsona batzuk nola bizi diren eta zer egiten duten ikusi ere egin nahi nuen.

Ba al dakizu nora joan nintzen behin? Basamortu batera, Egipto eta Libia artera, eguzki eklipse oso bat ikustera. Ilargiak guztiz estaltzen du eguzkia, gaua egiten da eta izarrak ikusten dira. Esperientzia bakarra, zirraragarria, gogoetagarria eta zoragarria da.

Eta hemen jarraitzen dut nire planarekin. Oso zaharra egin arte inguruan dudan guztiari begiratzea da nire plana. Eta bai neska guztiek beren planak egin eta bete ahal izan ditzaten lan egitea ere.

Eta **lanterna magikoaren energia** bukatzen ez den artean, horretan aritu nahi dut.

Luzia bizilagunak argi izena zuen, eta nik bidexka izena. Agian horregatik honako hau pentsatu izan dut: «Historiaren gainean jartzen den errespetuzko argiak etorkizuneko bidea argitu diezagula».

Eta hau hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan.

Camino Oslé Guerendiain



Irakurri eta berrirakurri

Protagonistak esan digunez, bera txikia zenean familiak oso handiak izaten ziren. Ba al dakizu zer esan nahi duen horrek? Oraingoak ere halakoak al dira?

Zergatik bultzatu zuen bizilagunak detektibe izatera?

Zer oparitzen zion igandero Luzia andreak? Atera al da objektu hori bera beste ipuinen batean?

Ba al dakizu nor den Sherlock Holmes? Ez badakizu, galde ezazu etxean edo ikastetxean, edo, ausartzen bazara, bila ezazu Interneten zeure kabuz.

Egin itzazu galdera berberak Agatha Christieri buruz.

Zein da ikusezinaren eta behatu gabe dagoenaren arteko desberdintasuna?

Zergatik uste duzu maite dituela hainbeste adineko pertsonak?

Zer ikasi nahi izan zuen?

Zer aurkitu zuen batere gustuko izan ez zuena?

Zergatik iruditzen zaio baliagarria dela agintzea?

Non ikusi zuen eklipsea? Zer iruditu zitzaion?

Zergatik esan du berak bidexka izena duela eta bizilagunak argi izena?

Pago lepatua.

Eguneroko
berpiztea.



Curriculum

Carmen Arrazola Lizaur

Zestoan (Gipuzkoa) jaio nintzen, 54 urte ditut, 23 urterekin ezkondu nintzen 16 urtetik adiskide hoberena dudan gizonarekin. Bi alaba eta seme bat ditugu eta ia-ia urtebete duen biloba bat, ANDREA izenekoa.

Batxilergoa Gasteizen eta Donostian egin nuen (Andre Mariaren lagunartea).

Enpresa Zientzietako lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (ESTE), 1975eko ekainean.

Geroztik ikasi eta ikasi jarraitu dut mota guztietako programa osarri, informatika, management, komunikazio, problema-konponketa, lidergo, pertsonen zuzendaritza eta berdintasunari buruzko gaietan.

Berriki INNOVA + Eusko Jaurlaritzaren ekimena garatzeko gaitasuna eman didate.

Gaztelaniaz, euskaraz (ama-hizkuntza), frantsesez (nahiko ongi) eta ingelesez (dezente ongi) mintzatzen naiz.

Beti izan dut konpromisoa gizartearekin eta GKEetan, hainbat elkartetan eta Ekonomisten Elkargo Profesionalean hartu dut parte, modu aktiboan.

Hitzaldietan, mahai inguruetan, biltzarretan eta abarretan ere hitzaldiak eman ditut.

Natura izugarri maite dut, lorezaintza, kanpoan ibiltzea, mendia, eskia, irakurtzea, literatura. Ipuinak idatzi eta kontatzen ditut.

Zuzendari lanetan aritu naiz zenbait enpresatan: Banco Bibao Vizcaya, Conservas Orlando, Heinz Iberica, Grupo Orilsa, Bioforesta, Aquadonosti (Donostiako Akuariuma).

Gaur egun aholkulari independentea naiz sustatu dudan ekimenean: IRUDIEKIMENA (gaztelaniaz, **IMAGINACIÓN**). Hortik turismoan eta gizarte harremanetan berrikuntzak sartzen saiatzen naiz.

Beste kontzeptu bat ere landu dut: BIZIGARRITASUNA (gaztelaniaz, **VIDABILIDAD**). Hortik hainbat entitateri laguntza teknikoa ematen diet aukera berdintasunean, prestakuntza zuzendariei, ikerketak, coaching, mentoring...

Eta, baikortasuna gainezka dudanez, mailegu bat hartu dut Kutxan, urte askoan itzultzeko, lokal bat erosi eta kale ondoan bulego bat paratzearren.



Hainbeste neskatxa, emakume eta liburu agertu ondoren, jarraian dugun ipuinaren protagonista zuhaitz bat da. Beharbada, usoak, mezuen artean, atsedentxo bat hartu ahal izateko, bere abar sendo eta eskuzabalen artean, edo, irakurri nahi duen haur batek bere hamaka zintzilikatu ahal izateko. Bestalde, lurra, ura eta eguzkia zeinen garrantzitsu diren ohartzeko balioko digu ipuinak.



Gipuzkoako barnealdeko basotxo batean jaio nintzen. Nire ama mimosa espezieko ale bat zen, loretsua eta ederra, beraz. Aita, berriz, hagina, **taxus baccata** familiakoa, zuhaitz mitologikoa, magikoa, erlijiosoa, gaitzak sendatzen dituen horietariko bat.

Biak elkarrekin hazi ziren, beren zazpi kimuei aterpea, sena eta babesa ematen.

Berdegune txiki hartan, egunetik egunera, kimu berriak agertzen ziren. Kontu dibertigarria, txikienek eguzkia ikusterik ez genuela izan ez balitz, gure gainean ehuntzen zen abarrezko espalpe oso itxia baitzen... Jakina denez, eguzkiaren izpiak jasotzen ez dituzten landareek ez dute hazteko eta koskortzeko aukerarik izaten.

Egunero bezalaxe, egunsentian argi printzak barreiatu zituen egun batez, hain ziren zakarrak heldu ziren haizeak non paisaia ezabatu zuten. Haizearen ondotik, ekaitza heldu zen, eta berarekin batera, uholde izugarri bat.

Paradisu txiki hura iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuen uholdeak. Txikienek helduenen abarrei gogor heltzen lortu bazuten ere, kimu gazteok mendian behera eraman gintuen urak.

Nire sustraiak lurlean berriz finkatzen ahalegin alferretan ari nintzelarik, bidean haritz gazte bat ikusi nuen, abentura berean izerdi patsetan nekez ziharduena.

Elkarri deitu, eta urari utzi genion biok eramaten, elkar topatu arte. Elkarren ondoan jarrita, abarrak gurutzatu, haizeari aurre egin, eta, azkenik, lortu genuen gelditzea.

Biharamunean, haritza, nire laguna, eta biok esnatu ginen hamaika harri, abar eta hostotan murgilduta, haize olde bortitzak eramandako nahaste zikinean, alegia.

Lohia eta hostoak soinetik garbitzen genituen bitartean, ikusi genuen hagin multzoa zutik zirauela gainalde hartan, zauri larririk jasan gabe.

Haginek irakatsi zidaten bizipen lazgarrien irakurketa baikorrak egiten. Hori dela eta, lur gaizto hartara heltzeagatik, beharbada, zorte handia izan genuela ondorioztatu nuen, ur putzurik ez zuten beste lur mardul batzuetan elikagaiak lortzeko lehia handiagoa izan





zitekeelako, lohiz eta harriz betetako
eremu hartan baino.

Orduan, pentsatu nuen beste zuhaitzek
oraindik aurkitu ez zituzten ongarri eta
elikagaiak topatuko genituela, baita gure abarrak
luzatzeko espazio zabalagoak ere, pittin bat
saiatzen baginen, behintzat.

Pentsatu eta egin. Laguna eta biok elkarren arteko
tarte egokia utzi genuen, handitzean, gure abarrak,
arazorik gabe hazteko eta koskortzeko aukera
izateko.

Lurrean errotu genituen sustraiak, sakoneko urak
aiseago xurgatzeko, eta, horrela, abarrak berritzeko.
Lasaiago, nonahi itsatsita genituen hosto zaharrak
eta hautsa harrotu genituen.

Orduantxe, ulertu genuen, gazteak eta arinak
ginen bitartean, sustraiak lurrean ahalik eta sakonen
sartzen saiatu behar genuela. Lan nekagarria izan

arren, urteak eman arren, ez zitzaigun axolarik,
sustraiak elikagaiak xurgatzeaz gainera, zutik
irauteko ezinbesteko euskarri baikenituen.

Suposatzen dut, gainaldean jarrita, amaren
ametsik eztena zela gu mimosa usaintsua
izatea, hori biziz jantzita, neguaren hasierari
ongi torria ematen diona, alegia. Era
berean, aita irudikatzen nuen begi ona izanen
nuela gogoratzen zuelarik, biokin goiko basotxoan
bizi nintzen garai hartako oroitzapenetan.

Egia esan, biok okertzen ziren, nire ametsa zen
hagina bezalako hosto iraunkorreko espeziea
izatea, urtaro bakoitzak eragin ohi duen aldaketarik
ez pairatzeko. Bestalde, neguan nire lore horien
edertasuna erakustea baino zerbait gehiago egin
nezakeelakoan nengoen.

Udazkenean, aziendak deskantsatzeko orbelezko
oheak egitea zen nire ametsa. Neguan ehundutako
alfonbra gorrien edertasunak zoratzen ninduen.

Eta, zer esanik ez, udaberria! Kimuak, berde-
berdeak, hosto dirdiratsu bilakatzea
baino ez dago gauza
ederragorik!



Naturan etengabe egokitzeko, eta itxuraz aldatzeko aukera izugarriak zeudenez, bost axola zitzaidan lore ñimiñoak izatea.

Hala ere, zuhaitz emeak zituen aukera botanikoak berrikusten hasita, inguruko paisaian arrak nagusi zirela ohartu nintzen: astigarra, zumarra, hagina, pinua, haritza, urkia. Lore guztiak, berriz, emeak ziren: arrosa, kamelia, hortentsia, petunia...

Zer izan ninteke ni?

Gauero, goiko aldetik hauxe esaten zidan ahots marmarra aditzen nuen: "Konformatu. Lorea edo sasia izatea ez dago gaizki", "Ba ote du zentzurik hain handinahia izatea?", "Zergatik izan nahi duzu desberdina?".



Aitortu behar dut haritzek edo haginek zituzten bezain irizpide garbiak izan nahi nituela noizbait.

Nortasun berria erabakitzen ari nintzen bitartean, eskura nuen guztia ikasi behar nuen. Euria ari zuenean, ura aprobetxatu behar nuen, bestalde, saparen bidez zelula guztiei jana helarazi behar nien. Fotosintesia egin behar nuen, basoa oxigenatzea neure ardura baitzen, baita eguraldiaren oreka mantentzea ere.

Hazte prozesu honetan, nire abar bakoitzak bere bidea egin zuen: **konpromiso** izenekoak, esaterako, bere lankideen alde jokatzeko zuten.

Ama izenekoak, sapa, elikagai, bitamina eta ongarri asko behar izan zuenak, bere bi alaben eta semearen alde lan egin zuten, batere atsedetik hartu gabe.

Lana abarra arren arteko mundu botanikoetan hazi zen, ehun urteko haritzak, punta zorrotzeko pinuak, elorri zuri, gorostiak, eta enbor zuriko urkiak inguruan zituela. Ale emeei bidea irekitzen laguntzen zien, airea garbitzeko eta espazio atseginagoa eta ederragoa sortzeko gaitasun handia zutelako.

Bestalde, hiru kimuak lagun, abentura liluragarriak izan genituen. Egunero, mota guztietako izakiak hurbiltzen zitzaizkigun: erle saiatsuak, habiak egiten zituzten txoriak, tximeletak, behiak, zakurrak, ardiak... basurdeak ere gure altzoan izaten ziren. Ordainik



gabeko babesa jasotzen zutenez, bizitzaren gaineko istorioak kontatzen zizkiguten piztiok.

Egun batez, ederki menperatzen nuen lurralde batean zoriotsu nengoelarik, buru-belarri lanean ari nintzen egitasmo bat zuzentzean, egurgile zakar batzuk **lana** izeneko abarra moztu zidaten errotik. Erortzean, abarrak beste abar txiki batzuk eramane zituen berarekin. Han utzi ninduten, zauria odolatan, nire gorputzaren beste abar batzuk haztea etorkizun bakarra nuela.

Egurgileek ikatza egiteko **lepatzen** zutela esan zidaten arren, ez nuen ikusi horretarako ezer atera zutenik... eroritako hostoek orbel zabala osatu zuten, lurrarekin bat egin zuena, hauts bihurtu arte. Abar txikiak, orain goroldioz estalita dauden horiek, inurrientzako egoitza bilakatu ziren.

Lehengo bera ez nintzenez zauria ez zen aise sendatzen. Uholdean borrokatzeko gai zen aspaldiko ale gaztea bera ez nintzen. Abarrek pisu handia zutenez, elikagai asko behar zuten bizirik irauteko. Hori dela eta, sapa erreka berriak behar nituen zauria ixteko.

Ibar horretako gaueko isiltasunean, gogoetan hasi nintzen. Ebakidura

oso sakona zenez, bertatik bizitza berririk sortzea ezinezkoa izanen zela beldur nintzen.

Haritzak, nire lagunak, eta nire kimuek, orduan aski kozkor zeudenek, babestu ninduten ahal bezala. Haizetik eta paisaiatik ere estaltzen ninduten. Beren laguntzari, eta, zorionez, bertan jarraitzen zuten sustraien bizigarriari esker, iturri berri bila, eta berpizteko aukera emanen zidaten elikagai bila hasi nintzen.

Aldi oro, neure buruari esaten nion berriz hasi behar nuela, ibarraren sakonera erori ginenean gertatu zen bezala. Etsita egonik ere,



ezbeharra gaindituta, berriz ere lanean hasi behar nuela gogoan nuen.

Hurrengo udaberriak opari berezia ekarri zidan: orbainetik beretik sortzen zen kimu ñimiño bat. Leku beretik erauzi zuten abar sendoaren aldean, berria hutsaren hurrengo zela esan litekeen arren, hasiera ona zen. Hurrengo udaberrian bi abartxo ziren... gero hiru...

Ebakidura mingarri horretako atsekabea gainditu ondoren, ohartu naiz gaur egun txoko ezin hobe dudala okilek habia egiteko. Aurreko egunean urtxintxa batek bertan gorde zituen pinaburuak negua pasatzeko.

Pago lepatua naiz, egoera guztietan, arrakastan eta oinazeen, zerbait ikasi duena. Beharbada, lehen baino jakintsuagoa naiz. Lan anitz egiten ahal ditut: ura banatu, nire gerizpean garden irauten duten iturburuak kudeatu eta elikatu, higaduratik lurra babestu, ekoizten ditudan hosto mordoaz lurra ondu, eta neguan estomak itxi eta hotzari aurre egiteko neure burua prestatu, besteak beste.

Hosto gorriko orbelaren gainean, nire laguna, haritza, aldamenean dut.

Carmen Arrazola Lizaur



Irakurri eta berrirakurri

Zure ama, ahizpa edo arreba, edo ezagutzen duzun beste edozein emakume zuhaitzak izanen balira, zer zuhaitz mota izanen lirateke?

Zure aita, anaia (anaia izatekotan), edo ezagutzen duzun beste gizonen bat loreak izanen balira, zer lore izanen lirateke?

Pago txikia eta haritz gazteak zer egin dute elkar topatzeko eta, jarraian, gelditzen lortu ahal izateko

Bi zuhaitzak elkarrengandik oso hurbil landatu dira? Zergatik? Zure ustez, zuhaitzek egiten duten bezala, pertsonak elkarren arteko tarterik utzi behar dute?

Zergatik dira hain garrantzitsuak sustraiak?

Ipuinaren protagonistaren hitzetan, zuhaitzak arrak dira, eta, loreak, berriz, emeak. Zuhaitz emerren bat, eta beste arren bat aurki zenitzake?

Zer esan nahi du pago emeak, lana izeneko abarra moztu ziotela azaltzen duenean?

Orbainak zeozertarako baliagarria ote da? Zer esan nahi dizu horrek?

Zure ustez, bere bidea zaila ala erreza izan da? Zergatik?

Ipuinean botanikaren edo natur zientzien gaineko hitz ugari daude, estoma, esaterako. Bilatuko dituzu?

Erriberako kimikaria



Curriculum

Carmen Fabo Malo

Carmen Fabo Malo dut izena. 54 urte ditut.

Zientzia Kimikoen lizentziaduna naiz 1978tik, Zaragozako Unibertsitatean. Urte horretan berean hasi nintzen lanean kimikari gisa azukre industriako laborategi batean. Bertan jabetu nintzen industria arloa nuela gogoko lanbide.

Urte batez irakasle aritu nintzen. Urte berean orain senarra dudan gizonarekin ezkondu nintzen. Ondoren, 1980ko urtarrilean lanean hasi nintzen zeramikaren industrian, ikerketa beka batekin. Bertan igaro ditut 24 urte eta zuzendari ere izan naiz.

Bi urteren buruan, saiakuntzen laborategiko eta prozesu nahasketako buru nintzen eta lehen haurra izan nuen, Juan, ingeniaria dena eta ia-ia bere gisa bizi dena. Hamarkada hori interesgarria izan zen niretzat, baita gogorra ere. Inbertsio proiektu bat eraman zen aurrera nire ardurapean. Horren bidez herrialde eta pertsona asko ezagutu nituen. Baina inbertsio guztiak ez ziren ongi bukatu; batzuk gogorrak izan ziren. Proiektu honen bukaeran gure alaba Maria jaio zen. Ileapaintzailea da eta hasi da lanean.

Gero, 90eko hamarkadaren hasieran, kudeaketa sistemak hasi zirenean, kalitate departamentuaren

ardura eman zidaten, emaitza interesgarriak ateratzen hasi ginen eta, nire bizitza profesionaleko ametsa bete zela ematen zuenean, ametsa bukatu eta enpresa itxi zuten. Hamarkada horretan ama zaindu behar nuen bereziki, hainbat gaixotasun izan baitzituen urte batzuetan. Asteburuetan berarekin egoten nintzen, buru-belarri, hil zen arte, 2003an.

Langileentzako prestakuntzan hasi nintzen. Hurrena industriara itzuli 3 urterako eta berriz hartu nituen prestakuntza eta aholkularitza lanak. Bi-biak egiten ditut orain.

Beti aritu naiz ikasi eta ikasi, LAP-eko teknikaria naiz hiru espezialitateetan, LAP-eko kudeaketan eta ingurumenean kudeatzaille aritu naiz, egoerak ekarri dizkidan erronkei aurre egin diet. Orain ingurumenean dihardut, batez ere, eta oso gustura nago horretan eta horrela bukatu nahi nituzke nire lanegunak. Familia funtsezkoa da niretzat eta gogoko dut zaintzea.

Oso maite ditut landareak, haiei ematen dizkiet asteburuak eta boluntario lanean ere aritzen naiz astean egun batean.

Ipuin hauetan emakumeek, neskatxek eta liburuek elkarri ematen diote eskua. Zuhaitz baten goreneko abarretik usoak begizatzen du. Beharbada, noizbait mezuren bat izanen du zuretzat. Irakur dezagun, egun hori heldu artean, ipuinak helarazi nahi dizun mezua.

Oroimenak ekarri ahal dizkidan haurtzaroko ene lehenengo oroitzapenetan, uniforme beltza, lepo zuri eta gogorra, eta lazo urdina janzten dituen aurpegi borobileko neskatxa bat agertzeaz gainera, ondokoak irudikatzen zaizkit: ikasteko mahai bat, liburuz betea, atzealdea etxez eta pertsoez hornitutako eszena bat, eta irudi erlijioso bat eskuinaldean, eskua luzatzen didana. Nire errealitatearen argazkian, egokitu zaidan bizitza zoragarriaren markoa antzematen da.

Erriberako herri batean sortu nintzen, nekazaritzan aritzen zen familia batean. Aitatxi-amatxiren altzoan hazi nintzen etxean. Amatxia oso emakume sortzailea zen. Maria ikazkina deitzen zioten, ikaztegia zuelako, alegia. Ikatzak sosik ia ematen ez zuen garaian, amatxia adinekoa izanagatik ere, soroetan aritzen zen. Uzta biltzera abiatzen zen, bere hitzetan, “alorraren burura”. Gauean, berriz, oroitzen naiz sutondoan irakurtzeaz gainera, etxerako lanak berrikusi, eta oraindik gogoratzen ditudan otoitzak erakustez zizkidala.

Aitatxiak behiak ateratzen erakutsi zidan. Esaten zidan: “Ez izan

beldurrik, neskatxa”, orduan, abereen hanken artean sartzen nintzen hondarrak ateratzeko eta ganbelan bazka jartzeko.

Aita, bestalde, herriko bizitza publikoan “eltze guztietako burruntzalia” zen. Gerra Zibileko bizipen eta triskantza guztiak niri transmititzen asmatu zuen, hemeretzi urte zituelarik bizi izan zituen gerrako gogorkeriak, alegia. Karrera bat ikasi behar nuela uste osoa zuenez, hamabi urte nituelarik barnetegira bidali ninduen, herriak gehiago ikasterik ez baitzen.

Ama emakume goxoa zen. Langile fina. Ezkondu ondoren, nekazaritzan hasi zen. Nire aitatxi-amatxiak zahartzean, gain hartu zuen zaintzea.

Barnetegia oso gogorra izan zitzaidan arren, ikasle oneko ospea hartu nuen, biologia eta matematikazalea.

Batxilergoa bukaturik, kimika zientziak ikastea erabaki nuen Zaragozako Unibertsitatean. Oroitzen naiz esfortzu eta gabezi handiko garaia izan zela.

Karrera bukatu nuenean, aitak udaleko osoko bilkuran iragarri zuen. Berriak merezi zuen! Bitxia iruditu arren, kontuan hartu behar dugu garai hartan emakume gutxik ikasten genuela unibertsitatean.

Industriako emakumeanintzela argi eta garbi nuen, eta, fakultateko



lagunek gure azken helmuga langabezia izanen zela igarri baziguten ere, horrelakorik gertatuko ez zitzaidalakoan nengoen.

Lehendabiziko lana “Sociedad General Azucarera” izenekoan lortu nuen. Garrantzitsua izan zen lehendabiziko soldata irabaztea, kimikari. Lantegian hiru emakume besterik ez ginen aritzen. Jantzirik ere ez zegoen guretzat! Hurrengo urtean ezkondu nintzen. Askatasunerako urrats handia izan zen niretzat. Gaur egun, bizitza elkarrekin emateko hautatu nuen gizona zoragarria da. Hori gabe, nire bizitza profesionala ezinezkoa izanen litzateke; ez dut zalantzarik.


Ezkontzako opariaren dirua erabili nuen analisi klinikoaren gaineko ikastaro baten matrikula ordaintzeko. Burutu nuenean, ikertzeko beka batez industria batean lan egiteko deitu zidaten. Horri esker, enpresa batzordekide gisa lehenengo pausuak eman, eta, beranduago, administrazio kontseilukide izendatu ninduten. Forohorietan, nire pentsamoldetik urrun zeuden beste pertsona batzuekin bizitzeko ikasi nuen. Bi urteren buruan, laborategiko nagusi eta lantegiko teknikari arduradun izendatu ninduten. Lehenengo bi urte horietan nire

semea eta alaba jaio ziren. Oso ongi oroitzen naiz senarra nire bila etortzen zela ingelesa hobetzeko matrikulatu nintzen hizkuntza eskolaren irteerara. Lehen bezala, gaur egun ere, garbi dago industrian ingelesa ezinbesteko hizkuntza dela.

Kimikaria nintzenez, denetarik egin behar izaten nuen. Zeregin zerrenda luzea nuen: ferietara joatea makineria ikustera, bezeroak ikustea, eta proiektu eta inbertsio berriak abiatzea. Etapa horretan bidaia asko egin behar izan nituenez, oso nazio desberdinak eta pertsona interesgarriak ezagutzeko parada izan nuen. Hala ere, dena ez zen eztizko bidea izan.

Urteak joan, urteak etorri, **kalitate arduradun izendatu** ninduten. Nire ardurapean sei pertsona nituenez, bertan lan egiten zuten guztien parte-hartzea lortu behar nuen. Horretarako, **hobekuntzarako taldeak** abiatu nituen. Langile gehienak sartu zirenez, egoera zailetan, eta, edukiz, aberatsetan, bizi ziren pertsonak ezagutzeko, eta harremanetan sartzeko aukera izan nuen.

Besteak beste, enpresan lanbide tailerretan pertsonak prestatzen aritu nintzen. Hartutako eskarmentua balio handiko baliabidea izan zen geroan. Parte hartu nuen proiektu interesgarri guztien



artean, lantegi berri bat irekitzea esperientzia berezia izan zen niretzat.

Une gogorak zirela eta, aurrera jo nahi ez, edo jarraitzerik izan ez zuten lagun asko galdu nituen. Beste pertsona batzuk kanporatu, edo beren ardurak kenduta, lantegiaren bazter batean bukatu zituzten egunak.

Enpresariak lantegia ixteko unea etorri zen. Orduan, baliabide guztiak aterata, bizitzari aurre egin behar diozu berriz. Lanean egindako harremanek lana berriz lortzen lagundu zidaten. Geroztik, lehenengo urratsak enpresentzako prestakuntzan emanda, industrian sartu nintzen berriz, zuzendaritza talde batean kalitatea kudeatzeko ardura nire gain hartzeko.

Ilusioz beteriko uneak izan ziren, hain zuzen ere, bidegurutze batean bi bideren artean zirt edo zart egiteko garaia heldu baitzen: alde batetik, kontzientzia lasaia duen profesionala izatera ninderamana, eta, bestalde, eskrupulurik ez duten pertsonen justifikaziorik gabeko nahikeriaren pean makurraraziko nindukeena. Lehenengo aukera hautatu nuenenez, handik urte gutxira atera behar izan nuen lanetik. Oraindik gogoratzen dut lankideen atxikimendua eta azken agurra: "Esker mila zaren horrelakoa izateagatik".

Eta, berriz ere, hasi naiz... Eta, batzuetan nola egin behar den ez dakidan arren, beste batzuetan, aldiz, aurrerajarraitzeko indarrapiztuta, bizitza proiekturako ortzemuga berriak bilatzen jarraitzen dut. Zauriak azalean izan arren, lortutako arrakastak eta lorpenak ere bidaide ditut: lan bizitza interesgarri bat, eta, zorionez, ondoan izan dudana jendetza zoragarria.

Hemendik aurrera, beste gauza batzuen artean, lan ibilbidean hasi, edo zuzendaritza ardurak bere gain hartu dituzten emakumeei nire esperientzia eskaintzeko asmoa dut. Nire eskarmentua, arrakasta, ongi eta gaizki egina... eta laguntzeko gaitasuna; dena egonen da hurrengo belaunaldiari utziko diogun ondarean.

Carmen Fabo Malo



Irakurri eta berrirakurri

Zer irakatsi zion amatxiak?

Ipuinaren egileak bere ama goxoa zela esaten du. Gizon goxorik ezagutzen duzu? Nolakoak dira?

Barnetegia gogorra izan zela esaten du. Susmatzen ahal duzu zergatik?

Zer gai zuen gogoko?

Enpresa batzordean zer ikasi zuen? Eta administrazio kontseiluan?

Zergatik kanporatu zuten?

Aurreko ipuinean pagoa zauritu dute. Zure ustez, emakume hau ere zauritu zuten?


Protagonista lanetik kanporatu duten beste ipuinarik ba ote da?

Zertan ari da orain?

Badaki beti gauzak ongi egiten?

Zer gaitasun du?

Nire globo
kolorezkoak



Curriculum

Esther De la Fuente Robles

Iruña, 1983.

Enpresa Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Bertan jarraitzen du, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasten.

Bekadun gisa aritu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuan eta gaur egun truke esperientzia batean dihardu ‘Högskolan Dalarna’ Unibertsitatean, Borlängen (Suedia), ERASMUS Programan.

Ba da neskatxa, liburu, ardi, izeba edo tomaterik, globoak gogoko ez dituenik?

Zuhaitzak dena emanen luke bere abarretan korapilatuak gelditzeko; usoak Madrilera edo Iruñera eramanez lituzte, atsegin handiz. Halaber, hurrengo ipuinaren egileak modu bitxian erabiltzen ditu: lanabes gisa, hain zuzen. Irakurri, ba, ea ideia horrekin bat zatozen.

Esther naiz. Kolorezko globoz beteriko hogeita hiru urteko bizitza dut.

Zergatik globoz? Itxura, kolore eta tamaina anitzekoak izaten ahal direlako. Ohartu naiz batzuk puztea oso zaila dela, birika indartsuak izan behar dituzula. Haiekin jolas mota anitzetan jostatzen ahal zara, airez edo urez betetzen ahal dituzu, baita gasez ere, Sanferminetan saltzen diren horiek bezala. Dena den, garrantzitsuena da globoak irria dakarrela berarekin beti, haiekin jolasteagatik edo sobera puzteagatik hausten badira ere. Hori gertatzen denean, ikaratzen gara biziki... hala ere, garrantzitsuena da gelditzen diren globo puskez beste globo txikiagoak egiten ahal ditugula. Konponbideren bat izaten da beti.

Txiki-txikitatik apeta bat izaten dut: gauza guztiei izena jartzen diet. Orduan, nire globoei, zergatik ez?

Eskola izena duena leku berezi batean gordetzen dut, barnean txikitan bizi izandako esperientzia guztiak barneak baititu:



jostatzeko irrika eta gauza berriak ezagutzeko grina, alegia. Globo hori puzteak ez zidan lan handirik eman, korapiloa egiteak pena handia eman zidan arren, horrez geroztik ezin izanen nuelako ireki. Hala ere, badakit, berari esker ere, gainerako globoak bilatzen ikasi dudala.

Saskibaloia izenekoa itxita dagoen arren, irekitzen ahal diren korapilo horietariko bat du. Ene irudiko, ederrenetarikoa bat da, horregatik, hain zuzen, ixtea lan zaila izan zen. Barnean garaipen handiak ditu, Nafarroako bi ligak, baita zenbait bigarren eta hirugarren sari ere. Zer esanik ez, porrotak ere gordetzen ditu. Dena den, gauza guztien gainetik oso ikasgai berezia du: talde lana, nor bera baino garrantzitsuagoa den zerbaiten zati bat zarela, egiten duzun guztia gainerakoek jasotzen dutela jakitea; huts egiten duzunean, defendatzean bete-betean aritzen ez zarenean, edo saskiratze bat eragozten duzunean, esaterako. Oso garbi duzu zure lagunak animatu behar dituzula, eta haiek zu animatuko zaituztela. Partidetan kontrako taldean jokatu duten lagunak ere badituzte, zelaian gertatzen dena bertan geratzen baita.

Nire globo gogokoenetarikoa bati **Adiskidetasuna** jarri diot izena. Niregandik hurbil egoten da beti. Luzea da, koloreen arabera banatua, lagun guztiak





desberdinak baitira. Nork bere ideiak eta gustuak ditu, nork bere ikuspegia eta bizitzan jokatzeko era. Dena den, desberdintasun horiek izanagatik ere, garen bezalakoak maite dugu elkar. Globoak zulotxoren bat duela ohartzen naizenean, oso partxe onak erabiltzen ditut, inon saltzen ez dituztenak. Erabilgaitzak badira ere, guztiok ditugu horrelako partxeak. Bestalde, ez dugu ahaztu behar eraginkorrak izateko, bihotzez jarri behar ditugula, esaterako: eskerrik asko, sentitzen dut, behar zaitut, behar izanez gero, ondoan izanen nauzu, oroitzen zara zeinen gustua egon ginen... Hau oso erabilgarria izateaz gainera, globoari puztuta irauten laguntzen dio. Globoari beste kolore bat gehitu baino lehenago, egiazkoa dela egiaztatu behar da, globoak eraginkorrak direlako benetako lagunak sartuta soilik. Gainerakoek globoa lehertzen ahal dute betiko.



Erdizka puztu dut beste globo bat, **Ikasketak** izena duena, hain zuzen. Nire iritziz, helduagoa izatean ere, lekutxoren bat izanen du beti. Oso berezia da. Etengabe oxigenoa sartu ezean, laxo gelditzen da, eta ez dago berarekin jolasterik. Hori dela eta, Enpresa Zientziak ikasi nituenean, globoa arras beterik ez zegoela iruditu zitzaidanez, gehixeago puzten saiatu, eta Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatua izateko ikasten jarraitu nuen. Horrez gainera, **Ikasketak** izeneko globoa puztuta mantentzeko eta ederrena izateko, lan etengabea



behar da, eta **beste baten antzik ez izateko ahalegindu**. Horretarako, ingelesa edo beste hizkuntzaren bat ikasten dut, ordenagailuan trebatzen naiz, etab.

Lana izeneko globo txikia da, duela gutxi baitut. Uste dut arreta eta esfortzu handiz tratatuko dudala, urte luzeetan nire laguna izanen baita. Oso kontu handia izan da niretzat. Berezia da. Esker oneko globoa da, behar bezala zainduz gero, hilabetearen bukaeran saria emateaz gainera, globo berrien bila jarraitzeko aukera ematen dizu, baita dituzunak mantentzeko ere. Garrantzitsua da beste lau globo eman dizkidalako: **Independentzia, Ardura, Eskarmentua** eta **Ezagutza** izenekoak, alegia. Zabarkeriaz jokatzegatik, ez dute airea galdu behar, nire bizitzaren oso alderdi garrantzitsuak baitira. Horretarako, oso lagungarria izaten da lan egiten duten ondoko pertsonengandik ikastea.



Lana izeneko globorik gabe, ezinen nuke **Bidaiak** globoa puztuta mantendu. Aspaldian dut globo hau, eskolako guztiak Frantziara ikasle-trukea egitera joan ginenetik, hain zuzen ere. Bertan konturatu nintzen berebiziko garrantzia duela beste leku eta kultura batzuk ezagutzea, haiengandik gauza berriak ikasi ahal izateko. Gainerakoekin alderatua, globo honen desberdintasun nabariena da munduko lurralde anitzeko airea duela: Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Itaila,





Perukoa... lurralde bakoitzetik zerbait ekarri, eta niregandik zerbait uzten dut. Bidaiak egiten ditudan heinean, putz eginik, eta dena nahastearekin batera, nire sorterriaren lekuko izatea ere mantentzen, eta beste leku batzuetako airea sartzeko lekua uzten saiatzen naiz.

Alaitasuna globo koloretsuena denez, aurrean izaten ahalegintzen naiz aldi oro. Jostalari, mugitu eta atseginenatariko bat da. Behin batez norbaitek esan zidan bezala: "Aurrez aurre duzunari irri egiten laguntzen dio irriak".

Azkenik, eta garrantzitsuena, **Familia** izeneko globoa dut. Aitortu behar dut globo hori gabe ezinen nintzatekeela bizi. Bere baitan naizen guztia sartuta dago. Aurrera nola jo behar den ulertzeko zenbait adibidek lagundu didate. Horietariko bat: gainerakoek nola ikusten zaituzten baino garrantzitsuagoa da zeure burua nola ikusten duzun. Beste bat da gurasoek irakatsi didatena, baita nirekiko arreta ere. Oraindik ere zer ikasia badut: nire amarengandik, langile fina, eta pertsona konformagaitza izaten, eta maite dudak jendearen alde borrokatzen, esaterako. Nekerik ez izaten, egin beharrari eusten eta adorea aitarengandik ikasten ditut. Ahizpak irakatsi dit konpartitzen, jolasten eta gustura egoten.

Lan nekagarria egin behar badut, globoren bat hartzen dut, burua gainean jarri, jolastu edo begiratzen diot... aurrera jarraitzen laguntzen didate. Gaur egun ditudan globoez gainera, geroan eskuratuko ditudan horien bitartez, espero dut nire helburuak lortzea.



Esther de la Fuente Robles

Irakurri eta berrirakurri

Zer egiten du globo bat lehertzen zaionean?

Nola dute izena bere globoek?

Nola konpontzen da Adiskidetasuna izeneko globoa?

Lana izenekoak hilabete bukaeran sari bat ematen diola esaten du. Zer da sari hori?

Zer gehiago ematen dio Lana izeneko globoak? Zein da ondoko hitzen esanahia: Independentzia, Ardura, Eskarmentua eta Ezagutza hitzena?

Beste globo batek Bidaiak du izena. Beste ipuin batean bidaiei buruz hitz egin da?

Zer irakatsi dio Familia izeneko globoak?

Nora irudikatzen dituzu emakumea, bere familia eta lagunak...?

Har emea

tximeleta

bilakatu

zen



Curriculum

Isabel Navarlaz Fernández

Iruñean jaio nintzen, 1972an eta Osinagan bizi naiz.

Hiru senide gara, bi emakumezko eta gizonezko bat, ni gazteena. Ezkondua nago eta hiru seme-alaba ditugu: Imanol, Iñaki eta Amaia. Soziologiako lizentziaduna naiz, Deustuan, Bilbon. Au pair gisa urtebete Connecticuten eta Delawaren egin ondoren, AEBetatik itzuli nintzen 1997an. Ezkondu eta GGBBetako bekadun bezala hasi nintzen lanean Lucas Girling-en.

1999an lehen semea izan nuen eta autonomo moduan jarri nintzen lanean. AIN-eko GGBBen Departamentuarekin aritu nintzen 7 urtez, Europako Proiektuen teknikari eta Gizarte ikerketako aditu bezala. Beste toki batzuetan ere lan egiten dut, konparazio batera Taller de Sociología ikerketa enpresarekin eta Nafarroako Gobernuko Segurtasun Eskolan, irakasle gisa.

2007ko maiatzetik Construcciones Juan Bautista Flores S.A eraikuntza enpresan dihardut; GGBBetako eta Marketing eta Komunikazio departamentuetako arduraduna naiz.

Ale ederrak dira liburu honen egileak, ezta? Mota guztietako pertsonaia harrigarriak aurkeztu dizkigute: ardiak belarra jaten ikusten zituzten bitartean hazi diren neskatxak, txori lanpetuak eta erauntsiak jasaten dituzten zuhaitzak, burmuina elikatzen duten tomateak, emakumeak (auzokideak izan ala ez), kolorezko globoak... Hori guztia gutxi izanen balitz, horietariko bat aurkezten zaigu jarraian, hartxo eme ederra izanen bailitzan.



Isabel dut izena. Har txikia izan naiz.

Harritzekoa bada ere, oso zoriontsu bizi izan naiz ahaideekin gure zeta kuskuan.

Betidanik, nire etxea izan zen ksku horretan, jolastu eta irri egin dut. Inoiz ez zait bururatu besterik egitea. Hala ere, jakin-nahi handiko animalia naizenez, egun batez, nekez eta herrestan, leihoraino heldu, eta... kanpoan ikusi ahal izan nuena zoratu ninduen!

Kanpoko argia eta koloreak izugarri ederrak ziren. Mota guztietako izakiak zeuden; zuhaitzak, loreak eta animaliak.

Aitortu behar dut kanpoko naturan zegoen guztia gustatu zitzaidala: haizeak zerabilen urrina, eguzkiaren berotasuna, ekaitza heltzen zenean

hodeien abiadura, eta euri tantek eragindako kilikak.


Zenbat eta gorputz handiagoa izan, orduan eta errazagoa zitzaidan leihora heltzea. Gero eta denbora gehiago ematen nuen kanpoko unibertso horri begira. Bertan egonik, dena ikusteak eta ukitzeak piztu ahalko luketen sentsazioa irudikatzen nuen.

Kuskuan, nire familiak argi eta garbi zuen, bizitza ederra, eta, aldi berean, zaila eta arriskutsua zela. Bestalde, nirekin hazi ziren anai-arrebak poz-pozik zeuden barnean. Ni ere oso pozik bizi nintzen arren, kuskutik kanpoko esperientzia berrien bila ibiltzera bultzatzen ninduen indar bitxia sentitzen nuen nire baitan.

Handik gutxira alde eginen nuela sumatzen nuen. Ikasitako guztia kanpoan ibiltzeko beharko nuela ziur nengoenez, lan egitearekin eta ikastearekin batera etxetik nola atera ikertzea erabaki nuen.

Leihotik begira orduak eta orduak ematen nituen halako arratsalde batean, bizitza osoan ikusi nuen izaki ederrena eta zoragarriena begiztatu nuen.

Gorputz txikia, eta marrazki eta kolore deigarritz betetiko hegalegi sagatsuak zituen. Hegalean ari zen, loreen eta landareen artean, ezintasunez, ia ukitu gabe.





Egia esan, liluratu
ninduen. Zer zen
ez nekienez,
irakasleari
galdetu
nion izaki
horren gainean.

Segurtasun handiz
horrela erantzun zidan:

- Izaki zoragarri
hori tximeleta da. Eta,
garrantzitsuena..., tximeleta izan baino
lehen, zu bezalako harra izan zen.

Orduan galdetu nion:

- Noizbait tximeleta izanen naiz ni?
- Jakina. Tximeleta izaten ahal zara. Jakin
behar duzu tximeletek zoriontasuna ekartzen
dietela loreei eta naturari. Hori bai,
lehenagoko zeregina baduzu, hots: **inork
baino gehiago ahalegindu**, gogor lan egin
eta ikasi, **beti pozik egon**, kolore eder horiek
bizirik mantentzeko, eta, garrantzitsuena,
kuskutik **atera beharko duzu betiko**.

Horrez geroztik, lanean aritu nintzen jo eta ke.
Batzuetan, batez ere nekatzen nintzenean, anai-
arrebak zeuden bezala, kuskuan ni ere goxo-goxo
nengoela esaten nion neure buruari. Dena den,
ahulezi une horietan, haizerauntsi baten antzera,
barneko indar izugarria kanporatu, eta nekerik gabe
aurrera jarraitzera bultzatzen ninduen.


Ikasturtea buruturik, irakasleak esan zidan:

- Prest zaude, neska.

Hori entzunik, arnas sakona hartu, barneko bizitzan
maitasunez lagundu zidatenei eskerrak eman, eta,
berriz itzuliko nintzela esanda, kuskutik atera nintzen.

Une hartan, miraria gertatu zen. Gorputzetik
hegal txikiak ateratzen zitzaizkidala sumatu nuen.
Ondoko hosto batera heltzeko moduko hegaldi
motza egitea ez zitzaidan zaila suertatu.

Gogoz eta adorez ekiten nion
eguneroko entrenamenduari.
Ariketa horiek hegalak
bizkortu zizkidaten.
Egunetik egunera,
gero eta handiagoak
eta ederragoak ziren.



Kolore dirdiratsuetako tximeleta handiak ikusten ditudanean, oraindik egin beharreko zereginaz

ohartzen naizen arren, naturari egiten diodan ekarpenaz, eta

poleneztatzen ditudan loreez oroitzen naiz.

Horrek pozten nau biziki.



Gaur egun eguzkitsua dugunez, lore usaintsuengana hurbiltzen naiz. Badakit nire zain daudela, eta haientzat pertsonaia garrantzitsua naizela.

Gaur egun, hegalek nire barneko zoriontasuna islatzen dute. Nekea sumatzen dudanean, har txikia nintzeneko barneko indar berera jo, eta hegalean jarraitzen dut. Gainera, ez nago bakarrik. Lagun bat dudanez, elkarrekin itxuraz aldatzen gara, gure bi har arrak eta har emea haztearekin batera. Txiki-txikitatik, pixkana bilakatu, eta tximeleta izan daitezkeela irakasten diegu, etorkizunean lan zoragarriei ekiteko.

Oraindik ere tximeleta handia eta ederra izateko bide luzea badut ere, ez dit axolarik, hazten naizen bitartean pozik nagoelako, eta natura ederrago bilakatzen dudalako. Ez zaizue iruditzen?

Isabel Navarraz Fernández



Irakurri eta berrirakurri

Zergatik bururatu zitzaion kuskutik ateratzea?

Jakin-mina bertutea dela iruditzen zaizu? Zertarako balio du? Zerbaiten gainean jakin-mina izateak balio izan dizu noizbait?

Zertan aritu zen etxetik alde egin baino lehen?

Nork azaltzen dio ez dakiena?

Nekagarria da harra tximeleta bilakatzea?

Egilearen ustez, guztien artean zer dohain da garrantzitsuena hazteko eta garatzeko?



Printzesa

gardena



Curriculumma

Margarita Zabala Baquedano

Margarita Zabala Baquedano dut izena, 48 urteko emakumea naiz (58-12-31), lanbidez psikologo klinikoa, ezkondua eta bi alabaren ama.

Psikologia ikasi nuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Ikasteko eta esperimenezko garaiak ziren haiek. Karrera bukatutakoan, aurkitutako mundu horrek baino familiak pisu handiagoa zuenez, Iruñera itzuli nintzen lanbidean jarduteko asmoz.

Hasiera gogorra izan zen, orduak eta orduak sartzen nituen boluntario gisa, soldatarik jaso gabe. Baina nire ahaleginak saria izan zuen: kabinete pribatu batean hasi nintzen lanean, gero beste batean... pixkana-pixkana jantzi nintzen lanean. Mota guztietako deialdietan eta oposizioetan hartu nuen parte. Horietako batean aukera bikaina izan nuen: Ospitale Psikiatrikoko prestakuntza programa batean kontratatu ninduten, urtebeterako, ustez. Hiru egin nituen, oposizioeko lanpostuak atera arte.

Lanpostua eskuratu eta bertan aritu naiz, zer edo zer aldatuta, oraindaino.

Ditudan titulu akademikoarengatik, ia-ia hasieratik izan ditut ardura besterik profesional batzuk, baina urteak pasa ahala erantzukizuna handitu egin da, bai zereginetan, bai pertsonetan.

2002an buruko eritasun larria duten pertsonentzako ospitale psikiatrikoko (Errehabilitazio Klinika) zuzendari izendatu ninduten.

Bertan jarraitzen dut. Nire bizitza profesionala eta pertsonala bateratzea zailxeago bihurtu zitzaidan ama izan nintzenean, batez ere alaba zaharrenak adimen urritasuna duelako.

Bestalde, badakit egoera hori bizitzeak alor guztietan aberastu nauela; aiseago ulertzen ditut beste pertsona batzuen gorabeherak eta sentipenak.

Har eme txikien trikimailuak ezagutu eta nolako eder eta indartsuak izan daitezkeen tximeleten hegoak ikusi eta gero, printzesa batekin topo egiteko garaia da, azkenik, ipuin honetako batean. Hori bai, printzesa berezi-berezia da.

Gure ipuinaren printzesa printzesa izateko hezi zuten, gaztelu batean bizi ez bazen ere eta gurasoak errege eta erregina ez baziren ere (alderantziz, lan handia egin behar zuten bizirik irauteko).

Haurra zenean, alai, bizi, jatorra, aztoratu samarra, sentikorra, lotsatia eta sentibera zen, nahi gabe zerizkion malloak eta ahots eten egiten zitzaion zerbait altu eta ozen esan nahi zuenean. Gardena zela uste zuen, batzuetan, eta jende guztiak zekiela zer pentsatu eta sentitzen zuen.

Erreinurik gabeko printzesa izanik, laster jakin zuen dinastia batzuk debekatuta zeudela, baina amets hau zuen beti: leinu argia aitortuko zitzaiola eta oraindik baliatu gabe zituen pribilegio eta ospeak emango zizkiotela.


Hala ere, oso interesgarria zen gaztelutik kanpoko bizitza. Anaia eta ahizpei esker, hamaika mundu zegoela ezagutzeko jakin zuen, eta guztiak ikusi nahi zituen berak. Pixkanaka, gozamen-mokadutxoak probatzen joan zen, gosea handitzen ziotenak: liburuak, filmeak, abestiak, hitzaldiak. Egunetikegunera handiagoa zen bere jakinmina, eta gero eta zailagoa zen asetzen.



Gurasoek hurbil nahi zuten, baina anaia eta ahizpek ikasten jarraitzeko berotzen zuten; izan ere, konfiantza handia zuten beregan, eta haiek lortu ez zutena erdietsi zezala nahi zuten.

Beste hiri batera joan zen bizitzera. Bizitza ez zen batere erraza izan han, eta goibel-goibel itzultzen zen etxera askotan, negarrez eta guzti batzuetan. Baina ez zuen etsi; aurrera egin nahi zuen, posible zela baitzekien.

Unibertsitatean (erreinutik oso urrun), bi mundu zeudela ikusi zuen: batean, jai eta dantzaldiak zeuden, eta bestean, liburuak, liburutegiak eta zer ikasi ugari. Ahalegin handiz, ikasi, prestatzea... lortu zuen, baina ongi pasa ere egin zuen.



Ipuin honen printzesari oso gustatu zitzaion esperientzia: etxetik atera, beste kultura bat ezagutu, beste hizkuntza bat ikasi. Bihotzean hartua zuela, betiko, lurraldea konturatu zen.

Karrera amaitu eta titulua eman ziotenean, erreinura itzultzeko tenorea heldu zen. Gurasoak zaindu behar zituen, hain sendoak eta hain gazteak ez baitziren egun.

Behin etxean, printzesa sentitu nahi zuen, baina ez jaiotzaz baizik eta ezkontzaz.

Baina makaltzen joan zen, zaldi gainerako printzea ez zetorrelako. Zergatik?



Printze urdinekin amets egiten zuen, gauetan, profesional bihurtzeko lan eta ahalegin handiak egiten zituen bitartean, egunetan.

Maite zuen lan egitea, eta gogo handia zuen lanpostu duin bat lortzeko. Hainbeste lan egin eta trebatu zen ezen saria jaso baitzuen: oposaketak gainditu eta lanpostua lortu zuen. Inoiz baino printzesago sentitzen zen; izan ere, **bere esfortzuari esker lortu zuen erreinu hori**. Handitasunez ospatu zen hori, baina gehien hunkitu zuena amak eman zion besarkada izan zen. Besarkatu bitartean, bere esker ona, bere harrotasuna, bere asebetetzea sentitu zituen.

Ospakizunak joan ziren, eta **bi indarren arteko torneoak** itzuli ziren: bata, prestatzen jarraitzeko premia, lanean buru-belarriartzeko beharra; besteak, bizitzeko grina, gozatzeko, esperimintatzeko eta maitasuna aurkitzeko gogo. Kolpez kolpe, eta ubelduraz ubeldura, oldar guztiei iskin egin zien.

Urteak igaro ziren, eta printzea aurkitu zuen, azkenik. Oso hurbil zegoen, egia esan, baina, begizko batek igel bihurtuz zuenez, zaila zen aurkitzen. Egun batean, musu bat ematea otu zitzaion, eta orduantxe desagertu zen sorginkeria, edota orduantxe agertu zen sorginkeria. Batek daki!



Nola okurritu ote zitzaion igelari musu bat ematea? Erraza da: inork ez baitzion modu horretan begiratzen, begi irten horiekin, alegia, eta, gainera, edonora laguntzen ziolako, saltoka, edonora eta beti, baita egun

hotz-hotzetan ere, igelek korroka egiteko gogorik ez zuten horietan ere, bere laguna zelako.

Amestu eta egia bihurtutako printzea zen. Nahi zuen bezalakoa maite zuen, gainera, printzeak, nola jasaten ahal zuen ulertzen ez bazuen ere batzuetan...

Gustura zegoen berarekin, ez baitzuen ez festa-jantzirik ez jai-makillajerik ere. Bera aukeratu zuen printzeak, eta horrenbesteko maitea ematen zion ezen beti amestutako printzesa izatera iritsi zela uste baitzuen.



Ipuin guztietan bezala, nirean ere herensugeak daude, ogroak eta sorginak, eta, batez ere, borrokak eta gatazkak, heriotzarainokoak batzuk. Nire ipuinean, aldiz, printzesek ere borroka egin behar dute. Zaldunek bakarrik borrokatu behar dutela pentsatzen zenuten ala? Eta zauriek min egiten diete. Eta, askotan, odol ugari darie. Sendatuta badaude ere, arrasto larriak dituzte oraindik.

Egun, ez dabil hain tente, hain zut, hainbeste izan baitira borrokaldiak, eta bere armak kaltetuta daude. Baina lanean ikusi dut nik, eta harritu egin ninduten bere energiak, bere orekak eta bere sen onak. Borrokaldiak galdu eta, edozein arrazoiengatik, armei eutsi ezin dieten asko zaindu eta laguntzen die. Ezagunak ditu berak gesta horiek, eta sortzen dituzten min eta odolak ere, eta, horregatik, zauritutako pertsonen bizitzak egunetik egunera erraztea du xede bere lanak.



Printzesa izaten jarraitzen du oraindik, egun, baina ez da ipuin baten bizi jadanik. Ipuinak asmatzearekin konformatu behar da, bere alabendako. Entzulezorrotzak dira, zinez, eta, baten bat oso gustatzen zaienean, esker mila ematen dizkiote eta esaten diote: «oso polita, amatxo!». Eta berak gorde egiten ditu txalo horiek, atsegin-atseginak baitira beretzat.

Bi printzesa eder dira orain bere alabatxoak, eta horiek ere maitagarrien ipuin batean bizi dira, beste batean. Handiak, loti ederrak bezala, maitagarri bekaizti baten bisita (erreinuaren zoriontasunari zion inbidia) jaso zuen, eta sorginkeria egin zion. Ehun urte lo eman ondoren pozik esnatuko al da? Batek daki! Nik uste dut printzesak ez duela ikusiko, agian, eta sorginduta samar egongo dela beti, familiarentzat.

Beretzat asmatu zituzten musika eta dantzak argiz beteko dituzte sorginketak, hori ziur. Espero dut indarrez baliatzea alaba txikiari, berak ere musika eta dantzak beharko baititu beste zauri batzuk sendatzeko eta, bere loreen usainaren artean, ahizpa lotia kulunkatzen jarraitzeko.

Margarita Zabala
Baquedano



Irakurri eta berrirakurri

Zeinek kontatzen du ipuina: protagonistak (lehen pertsonan), zuri zuzenean kontatzen dizun norbaitek (bigarren pertsonan), kanpotik dena ikusten duen norbaitek (hirugarren pertsonan)?

Nolakoa zen printzesa hasieran?

Zeren gose zegoen?, zerenak ziren jaten sitúen mokadutxoak?

Etiket urrutira al doa printzesa?


Ipuinaren beste protagonistaren bat ere joan behar izan al zen urrutira?, nora?, gogorra egin zitzairen?

Zein da duen oroimen onena oposaketak gainditu zituen garai horietatik?

Zergatik zuen atsegin igela?

Zer esan nahi du idatzi duen honekin: Ipuin guztietan bezala, nirean ere herensugeak daude, ogroak eta sorginak, eta, batez ere, borrokak eta gatazkak, heriotzarainokoak batzuk.

Zer egokitzen zaie egitea bere ipuinaren printzesei? Zure ustez, aldatu egiten al da printzesa gauzak gertatu ahala?



Saber

a-mar

Curriculum

Marisa Gabarain Iturgaiz

Jaio: Donostian, 1956ko abuztuaren 21ean

*Gaur egun: 51 urte, ezkondua eta
Iratiren (24) eta Iosuren (20) ama.*

Bizilekua: Lizarra.

Prestakuntza:

Enpresa Zientziak, Donostian; banketxe arloko ikasketak eta ikastaro ugari eginak 80etatik, bai ekonomiako, bai finantzetako eremuei buruz; orobat, enpresen zuzendaritzako eta kudeaketako tresnei dagokienez. Azkena, 2007an egina, Coaching Exekutiboko ziurtagiriei buruzkoa da.

Lanbide esperientzia:

1978-1991: EMBEGA, S.Coop. enpresan, M.C.C. taldekoa da, Lizarran, 13 urtez. Enpresa horretan hainbat arlotan aritu nintzen: kontulari, produktu berriaren saltzaile, erosketen departamentuko partaide eta berriz finantza departamentura, ondoko ardurak nituela: kontularitza eta kostuak, aurrekontuaren eta banketxeko eragiketen kontrola, baita inport-esportena ere.

Garai honetan jaio ziren alaba eta semea eta beti ondoan dut mutil-laguna neke, poz eta goxoetan.

1991-1993: Calzado Navarra Sport enpresa, oinetakoak egiten ditu. Administrazioaren, kostuen eta erosketen ardura dut.

1994-actualidad: ANELen, Nafarroako Lan Enpresen Elkartean hasi nintzen. Erabat aldatu nituen ordurarte enpresa industrialetan eginikoak. Enpresaburuak Prestatzeko Zentroak, Elkartekoak, alegia, antolatzen dituen prestakuntza proiektuak kudeatzea eta zuzentzea proposatu zidaten. Gaur ANEL – Prestakuntza koordinatzen dut eta Kudeatzaileen Eskola sortu berriko zuzendaria naiz.

Aurreko ipuinek ekarritako gauza miragarriak (tomateak, liburuak eta globoak barne) ikusita, atera diren animalien artean arrainik ez dagoela pentsatuko zenuen beharbada. Bada, baten bat agertzeko garaia heldu da jadanik. Ahalegin handiz igeritan ibiltzen bada ere beti, ur-lasterraren kontra askotan, hementxe dugu, azkenik, bizi-bizirik, izokin eme gogotsua, uretan, itsasoaren eta ibaiaren artean, daraman bizitza kontatuko diguna.

Dakizuenetz, Lurraren izaki gehienen bizia habitat berean garatzen da: batzuk dira lurarrak, beste batzuk urtarrak dira eta beste batzuk airekoak dira; gutxi dira aldatzen direnak, eta horregatik nago hain harro nik dudan berezitasun honetaz: ibaian zein itsasoan bizi naiz.

Nire bizitza hasten da nire izenaren hasierako hiru hizkiek definitzen duten tokian (**mar**), eta, horregatik, bere usaina eta zaporea beti egonen dira nire ADN delakoan, urrutira joan banaiz ere.

Itsasoan izandako nire biziari hauxe zor diot: familiak balioetan hezi izana, ikasketak, gizarte sentikortasuna, ahalegin pertsonala eta itsas gesal ugari.

Itsasoa, dakizunenez, itzela da, amaigabea eta arriskuz bete; arrain txikiak jan nahi dituzten arrain handiak, ontziak, etengabe zirikatzen gaituzten arrantzaleak; eta ni, ametsetan ur desberdinekin, urdina ez den beste kolore batzuetako naturarekin,...

Natura, atari zabaleko bizitza eta kirola maite ditut oso, eta, hartara, beste giro batzuetaz galdetzen dut.

Ibaian izandako abenturaren ondoren itsasora itzultzea lortu zuen izokinen bati buruz hitz egin didate lagun handiek. Bizitzeko habitat zaila dela esan zuen izokinak.


Jasan beharko ditudan egokitzapen arazo guztiak azaltzen dizkirate: hasteko, arnasa hartzeko modua desberdina dela esaten didate, baita flotatzeko modua ere; horrez gain, ur-jauziak daude, heriotza ekar dezaketen tranpak direnak; dena kontra doala ematen du; eta ni obsesionatuta nago.

Jauzi handia egingo dudalako erabaki sendoa hartuta, itsasertzeraino hurbiltzen naiz, igeriketan, eta oso toki arriskutsua da hori, arroka handiak daudelako eta olatu bortitzek arroken kontra jaurti ahal zaituztelako.

Ur gezaren usain eta zaporeak hara eramaten nau, eta, itsas ondoan antzematen dudanean, ibai baten bokalea dela deduzitzen dut eta barrura sartzen naiz.

Ikusten dut (imajinatu bezala) ibaiak mugak dituela, hegalak, landare eta kolorez betetako ertzak, eta ura garbiagoa dela, freskoagoa; gustura sentitzen hasten naiz, horrenbestez.

Seguru-segurua sentitzen naizenean eta ibaiaren ura ongi ezagutzen



dudanean, arrantzale batekin topo egin ibaiertzean, eta berarekin geratzea erabakitzen dut. Bere sareetan harrapatzen naiz, eta nire bihotzeko amodioa bilakatzen da bera.

Ibai-arrantzale horrek Lizarraraino eramaten nau, eta nire lehen lan egonkorra aurkitzen dut han.

Industria kooperatiba batean izan zen, administrari eta kontulari gisa. Gero eta ardura eta eginkizun gehiago lortu nuen, giroa batere lagun ez bazen ere: higuina sentitzen nuen, eta zail-zaila zen emakumeentzat. Baina ni ilusioz beteta nengoen, eta aurrera egin nuen.

Arnasten genuen giroak txibiarena ekartzen zidan burura; izan ere, txibiak, itsasoan, arriskua sumatzen zuenean, hodei beltza kanporatzen du, ongi ikusten galarazten duena.



Bada, horrelaxe nengoen ni askotan, hodei beltzen artean igeriketa egiten, intolerantziak eta matxismoak osatutako hodei beltzen artean, harik eta hodei beltzarena iritsi arte: hamahiru urte igarota, eta enpresan krisi egoera gainditutakoan, ibaiaren ertz berriren bila jo nuen.

Bizitzak ibaian bere bidetik jarraitzen zuen bitartean, beste gauza bat nahi nuen nik, lanaz gain, seme-alaba izan nahi nuen, alegia. Ez nekien, dena

den, biak bateratzeko gai izango nintzen.

Baina zera pentsatu nuen: gauza izan banintzen itsasoan zein ibaian bizitzeko, baita txibien hodei beltzen artean nabigatzeko ere, nola ez nintzateke gai izango lana eta familia bateratzeko? Gainera, ez nengoen bakarrik.

Bizitza nahian, ikastean eta praktikan jartzean datza, hori uste dut nik behintzat, eta, horregatik, nire giharrak entrenatzeko ariketak egiten ditut, sendotzeko, salto txikiak egiten ditut batzuetan, beste batzuetan surf motako labainketak, eta, gogotsu sentitzen naizenean, ni ama eta bera aita izateko abenturari ekiten diot nire bikotekidearekin batera. Lortzeko, ibaian gora egin behar dugu ni bezalako izokin emeok, hots, korrontearen kontra egin behar dugu igeri. Gainera, bidean, ur-jauziak daude, gainditu beharko ditudanak. Egia esan inoiz ez nuen pentsatu hainbeste ahalegina beharrezkoa zela.

Nekatu-nekatuta nengoen, azkeneko jauzietako batean, inoiz baino nekatuago, baina, orduan, nire bikotekideak, nire aurrean zihoanak bidean, bidea oztopatzen zuen harri bat mugitu zuen; harria erori zen, eta nik jauzi arina egin ahal izan nuen.


Leher eginda heldu ginen, baina, urteak igarota, familia osatzea lortu dugu, eta harro-harro sentitzen gara izokin kumeei begira jartzen garenean.

Orain hamabost urte heldu nintzen alde goienera, ibaia sortzen den tokiraino.

Urte oro, izokinak, harrak zein emeak, gauza bera egitera etortzen dira, eta askok ez dakite nola itzuli itsasora gero.



Gehienetan, leher eginda iristen dira, eta hil egiten dira.



Horregatik, nik hemen geratzea erabaki dut, haiei laguntzeko. Hiru urte daramatzat enpresa laboralei prestakuntza eskaintzen dien zentro bateko zuzendari lanetan. Jakin badakidalako, prestakuntza egokia eta nahikoa energia izanik, hazkunde pertsonal eta profesionaleko bideak laburragoak eta seguruagoak izan daitezkeela, laguntza garrantzitsuak baitira ibaian zehar egin beharreko bidaia honetan.

Izokin eme bakoitzak, izokin har bakoitzak ibaiaren arriskuak ezagutu

behar ditu (arrantzaleak zein harrapariak), eta, era berean, urak zikintzen dituzten isuriei ihes egiten jakin behar du; izan ere, non ote ez dago arriskurik?

Ziur aski, itsasora itzuliko naiz ni ere inoiz; faltan sumatzen dut askotan bere usaina, handitasun horretan zeuden gauza miresgarriak, hondarra, olatuak,... eta, gainera, jaistea igotzea baino askoz errazagoa izan daitekeela uste dut askotan. Batek daki!

Baina hemen geratu nahi dut oraingoz, ikasi nuena irakatsi nahi dut, atzetik datozenei laguntzen jarraitu nahi dut, harriak jarri edo kendu nahi ditut, eta bidea erraztu; beraz, oraingoz, ibaiaren goialdean geratuko naiz, eta amets hau izanen dut: **saber amar**.

Marisa Gabarain Iturgaiz



Eguzkiaren
beroa


Curriculum

Pilar Irigoien Ostiza

Pilar Irigoien Ostiza naiz, Urdiainen (Sakanako herri eder bat) jaio nintzen duela 45 urte. Ama, aita, aitona, amona, eta amaren ahizpengandik ikasi nuen, ahizparekin eta anaia bikiekin batera, lanaren, arduratsu izatearen, apaltasunaren eta ekimenaren balioa zoriontsu izateko. Enpresa Zientziak Zaragozan ikasi eta nire lanbideko lehen esperientzia (lanean txikitan hasia nintzen) Altsasuko Udalean izan nuen, ekonomialari gisa. Zinegotzi zoragarri bat ezagutzea, horixe izan zen garai hartako gertakari garrantzitsuena niretzat (izengoitiz Piloto; feministekin ikasia; ez nituen inoiz lisatu haren kamiseta hondatuak). Berarekin bizi naiz 1989tik. Alaba bat, June (15 urte eta 1,80ko neska, errebel Diaz bete) eta seme bat, Jon Kepa (12 urteko goxoki bat) ditugu. Marianek laguntzen digu horiek

biak zaintzen. 1989an Celia Oiz konbentzitu nuen CEIN proiektuan ni sartzeko. Geroztik han aritu naiz 18 urtez, erakundea handitzeko eginahaletan. Lan ugari egin ditut: prestakuntzako koordinatzailea, aholkularia, taldeko arduraduna, hasi berrien arloko zuzendaria eta abar. Azken arlo horretan 30 lagun saiatu eta gozatu gara eta nahi genituen helburuak lortu ditugu. Eta aldatzeko garaia etorri zen: 2008ko urtarrilaren 1ean beste enpresa batera joan nintzen, kudeaketako laguntzaile gisa. Galdera honi erantzun nahi nioke etorkizunean: zertan hobetuko dut nire enpresa? 1999an Nafarroako emakumezko zuzendari hoberenaren saria eman zidaten. Egun horretan Junek zama handi bat kendu zidan gainetik, ondoko hau esan zidanean: “zu ongi bazaude, ni ere bai”. Horrela gertatu da.

Izokin emea ikusi berri dugu, ibaia gora, ur-jauzien, zurrumbiloen artean, baita izokin kumeak ere, hots, bere seme-alabak. Eguzkiaren txanda da orain. Bere ipuinetako bat kontatuko digu. Eta esango dizkigun gauzetako bat urak duen garrantzia da, eta berak, hain zuen, ez du urik.



Nik

ez dakit noiz ikasi nituen gauzak. Agian, ikasten eman nuen bizitza osoa eta dena hasi zen nire ama-izarretik eratorritako hauts pixka bat baino ez nintzenean. Distira eta beroa ematen zituen izar bat zen hura, eta, behin, bat-batean, ulertu ez nuen arrazoi kimikoren batengatik, desintegratu egin zen, eta bakarrik aurkitu nuen nire burua espazioan.

Nire gorputzak zuen beroa sakon-sakona zen; izan ere, izar baten alaba nintzen. Beroa dela eta, lurrindu egin ziren nire gas horiek, eta magnetismo arraro bat betetzen hasi nintzen; horrela, noraezean, bakar-bakarrik, zihoazen planeta eta izar txiki asko nire azalera akoplatzen ziren.

Sendoagoa nintzen egunetik egunera, eta indar eta tamaina gehiago hartzen ari nintzen, baina unibertsoan patu bila zebilen izar bat baino izaten jarraitzen nuen, bizia sortu ahal izateko urik ez banuen ere.

Milaka

urte eman

nituen oinazeak berrikusten, eta, bai, onartu behar dut triste samar nengoela uraren dohaina zuten beste planeta eta satelite batzuekin alderatzen nuelako neure burua.

Hara, urik gabe ezin izango nuke bizia eman, ezta kolorerik izan ere, eta, gainera, inor ezingo litzake nirean bizi...!

Zer izan ninteke ni?, Zertan aritu ninteke ezinbesteko elementu hori gabe?

Hori dena buruan nuela, espazioan grabitatzen ziren milaka partikula niregan hurbildu eta itsatsi egiten ziren, nire nukleoaren iman ahaltsuak erakarrita. Eta, horrela, pixkaka (edo askoka, Lurrean igarotzen den segundo bakoitzeko milioika urte igarotzen baitira espazioan), izar erakargarri eta boteretsu bilakatu nintzen, aginduak ematen zituena eta inguruan zeuden astroen biziei beroa ematen ziena.



Egunbatean, halako
batean, nire forma bete, osatu
egin zen, eta oraindik ulertzen ez dudan arrazoiren
batengatik, sutan hasi zitzaidan zerbait barrenetan.
Egindako bidea beste asteroide batzuekin batera
gozatu izanaren eragina ote? Beste asteroide batzuk
forma bitxiak hartzen ari zirela ikusi izana ote? Beste
planeta batzuei Unibertsoan euren tokia bilatzen
lagundu izanaren asebetetzea ote? Baliteke bero
horrek ez erretzea eta ez suntsitzea?

Egia izan, ez dakit zer gertatu zen hain zuzen,
baina eraldaketa batzuk gertatu ziren bata bestearen
atzetik.

Eta orduan gauza miragarri hori (misterio hutsa,
nola gertatzen diren azaltzen zailak diren horietako

bat, ziur aski)
gertatu zen: asteroide iluna
nintzen hori ASTROA (letra larriz) bilakatu zen,
Unibertso gainerako planetei argia eta beroa
ematen diena, alegia. Edo, agian, izan banintzen
jadanik lehen, eta nik ez nekien?

Nire tamaina espazioan zeuden gainerakoena baino
askoz handiagoa zen, eta horiek ere, argi eta bero
fenomeno berriak erakarrita, nire ondoan kokatzen
hasi ziren, biraka eta biraka. Eta nik, zuzendari
lanetan, gozatu egiten nuen euren orbiten bidea
erakusten eta errazten.

Etorri zen lehena Lurra izan zen, eta 150 milioi
kilometrora kokatu zen. Erabat kontrolpean dut,
eta horregatik dakit nire inguruan birak ematen
dituela, 24 ordu oro, 365 egun (urtebete)
hartzen dituelarik horretarako.



Askoz hurbilago dago Merkurio, dena den, 58 milioi kilometrora. Eta Artizarra ere, 108 milioi kilometrora.

Urrunago daude Martitz, Zeres, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno, Plutoi eta Eris, euren sateliteekin batera (dena den, noizean behin, baten bat kentzen didate zerrendatik).

Lurra lehena etorri zenez eta nahiko hurbil kokatu zenez, arreta berezi eskaini diot beti. Horrek ez du esan nahi gainerakoak baztertu ditudanik, planeta eta izan bakoitzak eboluzionatu, hazi egiten duelako, baita nork bere beroa aurkitu eta argia islatu ere erabat aldatzen den oreka batean.

Batzuetan, penaz ikusten dut nola galtzen diren izarrak: erabili ez diren ideiak dira, balioa ez duten aurriritziak, ekimen eza eta inkomunikazio ekaitzak; horiek guztiek planetak euren orbitetatik urruntzen dituzte, baita orbita komunetatik ere.

Eta norabide hori hartu du nire lanak, Unibertsoko orkestraren zuzendari gisa. Ezinbesteko lana da hori, edozein izarrek bere tokia aurkitu dezan espazio itzel honetan. Beste planeta eta asteroide batzuei laguntzen diet beste unibertso batzuk sortu eta zuzentzeko arte horretan.

Eta, ohi bezala, mingarria da batzuetan, sortzen dituzuen eguzki eta sistema berriak urrundu egiten direlako eta orbita propioak jorratzen dituztelako. Baina hori gertatzen den aldi oro, argi gehiago sortzen da Unibertsoan, eta sortuko diren izar eta planeta berriek onura aterako diote horri.

Pilar Irigoien Ostiza

Ura

iristen

den

lekuraino



Curriculum

Pilar Mayo Falque

Donostia, 1960.

*Lau ahizpatan bigarrena. Mutil-lagunarekin
bizi da eta Olaiaren eta Malenen ama da.*

*Psikologiako lizentziaduna Salamancako
Unibertsitate Pontifizioan. 10 urtez psikologia
klinikoko kontsulta pribatu batean eta Gipuzkoan
emakume talde batzuekin lan egin ondoren,
Emakunden espezializatu zen berdintasunerako
teknikari gisa. Aholkulari eta irakasle lanetan aritu
zen bi lankiderekin eta berdintasunerako teknikari
bezala Donostiako eta Iruñeko udaletan. Lan kontuak
zirela medio Iruñera etorri zen bizitzera, familiarekin.*

*Lau urtez Nafarroako Emakumearen Institutuan aritu
zen, Informazio eta Lankidetzaren Ataleko burutza.*

*Gaur egun Nafarroako Gobernuako
Hezkuntza Departamentuko Kalitatearen
eta Genero Berdintasunaren Zerbitzuko
Berdintasunaren Ataleko burua da.*

Eguzkiaren beroa eta argia alboan dugula oraindik (zer gozoa den eguzkiaren beroa negu hotzean!, ibaian gora eta behera zebilen izokin emearen primeran etorriko litzaiokeen ipuina dator.

Oraingo honetan, uraren egoera eta abiaduretatik, zabalera eta suhertasunetik kontatzen digu bere bizitza egileak. Ertzak behar-beharrezkoak direla dio. Ur geldien eta ur lasterren sekretuetaz ariko da.

Abentura izan zen arroila jaistea, onenetariko bat, nik uste. Ibaia arroka-pareta itzelen artean doa, urek saltoka egiten dute aurrera, eta zu hortik joaten ausartu behar zara, amaieraraino, ura iristen den lekuraino.

Bizitza bera bezalakoa da: ibilgua egiten eta ibaiertzak elikatzen dituen ura gara, batzuetan, eta, beste batzuetan, abiadura handiz aurrera egiten laguntzen diguten ibai handietan murgiltzen gara.

Nesken ikastetxe batera joan nintzen ni (orain ez dago halakorik), eta bertako emakume askok horietako asko oso interesgarriak ziren -«amak» esaten genien guk- garrantzitsua dena irakatsi zidaten: pertsona izatea, neure buruan sinestea, errespetatzea, ahalegintzea, ikastea, zintzoa izatea. Eta gurasoek gauza bera erakutsi zidaten. Ibaiertzak zentratu eta definitzen lagundu zidaten, baita nirekin batera jaio eta jadanik lasterka egiten hasita zegoen ibai handiaren emaria kontrolatzen ere.

Atzera geratu ziren eskolako kontuak, lagunak, lehen amodioak, eta unibertsitatean ikasten hasi nintzen.

Urte horiek oroitzeak nire nostalgia, nire lortutako ametsak eta urrutiko lagunak eztitzen ditu.

Emaria gero eta zabalagoa egiten ari zen, eta ibaiertzak elkarren urrunago joan ziren. Urek erritmo desberdinak hartzen zituzten, batzuetan, azkarrak, batzuetan, motelak, eta jauzi handiak eta urgeldiak tartekatu egiten ziren ni hazi ahala. Korri egiteko tokiak eta atsedena hartzeko tokiak aurkitu nituen, eta beste ur batzuetako erritmo desberdinekin topo egin nuen. Galdetu gabe batzen zitzaizkidan ur horiek, euren kolorea eta indarra jartzen zituzten emari berean eta aurrera egiten zuten. Hainbeste gauza partekatu genituen! Hainbeste ur berri ezagutu genituen gazte urte horietan: ibai garbiak, ur gardenak, gun e irekiak..., bizitza osoa genuen aurrean!

Argi eta itzal sakoneko ur distiratsuak aurkitu nituen, ur hotz eta garbiak, ur epelak, ur freskoak eta ur-jauzi ezinezkoak.

Ikusten nola urak pertsona buruz hitz egin dezakeen?

Urak bizitzari buruz hitz egin dezake. Jauzia egiten ausartzen bazara, arroila jaisten baduzu,





konfidantzaz urperatzen bazara, egarritz edaten baduzu eta atseginez bainatzen bazara..., bada, hori dena egitea lagun atseginak, lagun minak (beti lagun izango dituzunak, freskatu egiten dutenak, egarriak kentzen dutenak eta arima garbitzen dutenak) bilatu eta aurkitzea bezalakoa da.

Horregatik, bilatu nahi diren ibaiertzak ez direla beti aurkitzen jakin badakizue: ura hain dago hotza batzuetan, ezen mina egiten baitu ukitzeak, bere indarrak metro batzutan eramaten gaituelarik bidetik, arrastaka, gelditu ezinik ia... Laguntzen ez duten pertsonak dira horiek, min egiten dutenak, batzuetan ibaiertzak suntsitzen dizkizutenak pasatzerakoan.

Baina beti aurkitu daiteke bidea, zure ibilgu irekia, ibili nahi dituzun tarteak eta norabidea erabakitzeko gunea. Batzuetan, ur gutxirekin, beste batzuetan, ur askorekin, desberdina da beti, baina beti zure emaritik.



Eta ziurtasun bat nire lehenengo lanetik: emakumeen alde lan egiten jarraituko nuke.

Beste ibai ezezagun batzuk ezagutu nituen garai horietan, asmatu ere ezin nituen emakume batzuk, ur alaiak, ur loak, bide luzeak egiteagatik nekatutako urak, ibilgu komunak eta patu partekatuak bilatu eta aurkitzen ari ziren emakumeak. Euren bizitzekin ibilguak egin eta aldatu nahi zituzten emakumeak, eurek aukeratu ez zituztelako askotan.

Nire lagun minek (beste ur batzuk eta beste ibaiertz batzuk) beste bidaia batzuk eta beste bide batzuk egitea erabaki zuten. Euren arrakastek, zalantzarik gabe, mundu berdinen beste iraultza, beste konkista eta beste aurrerapen batzuen balioa izanen dute ere. Urak ez dira beti ibilgu berdinetatik joaten, baina ez ahaztu batzuetan begien bistatik desagertutako lagun horiek zure mahaian eseriko direla inoiz eta zuk inoiz





egin ez dituzun bidaia ikaragarriak kontatu ahalko dizkizutela, eta horiek entzute hutsak kolorea emanen die zurekin batera doazen urei ere.

Nire ibilgu profesional eta pertsonalean uhar biziak eta tanta baliotsuak egon ziren, eta guztiak izan ziren garrantzitsuak niretzat, euren indarra kutsatu eta euren konfiantza eta jakinduria oparitu baitzizkidaten. Baldintzarik gabeko sostengua nire lehenengo eskola egunetik. Tertulia eta solasaldietan aritutako gau luzeetan nireganatutako adiskidetasun eta konplizitatea.



Uren marmarren artean aditu nituen gogoetarako hitz jakintsuak.

Eta, batez ere, bidea erraztu eta eurek izan ez zutena oparitu zidaten emakumeen eskuzabaltasuna. Eurek, urrun-urrun bazeuden ere, jorratu eta sostengatu zuten neure bulego profesionala sortzen ausartzeko unea.

Eta beste emakume asko ere. Ilargiaren beste aldearen isla uretatik begiratzen ikasi nuen haiengandik. Horiek guztiek hitzek, nahiak eta oroimenek osatutako aztarnak utzi dituzte nigan, euren zaporea eta kolorea nahasten dituztenak nirekin batera doazen uretan.

Baita nire lanarekin eta nire bizitzarekin batera heldu ziren beste lagun batzuk ere, nire bikotekidea eta gure bi alabak (Olaia eta Malen) ahaztu gabe. Ur gardenetako ibai garbiak dira biak, gure izar guztiak islatuko dituztenak, ziur-ziur. Ama izatearen lana.

Eta, berriro ere, bidearen bihurgunea batean, ustekabeko jauzi bat..., ardura eta erantzukizun

berriak nire lanean. Esperientziak, nahiak, eguzki eta ilargiaren islak, gauza guztiak irakatsi dizkidaten gizon eta emakumeak izanen ditut lagun erronka berri horretan, zuzendaritza lanetan ibili beharko dudan ibilgua aurkitu eta margotzeko.

Eta, hala ere, ba al dakizu zer gauza ez dudan inoiz ahazten? Emakumeen arteko sare eta sostenguek zubi sendoenak eta lotura estuenak osatzen dituztela. Izan ere, ur sakonak edo amildegi arrokatuak zeharkatzen dituzte zubiek, jauziak eta erorketak babesten dituzte sareek, batu eta lagundu egiten dute loturek, mundua josi eta sostengatu egiten dute, eta elkarri lotzen diote, noski.

Eta horregatik sortu zen istorio hau, ipuin hau, bizitzaz eta bizitzarekin batera etortzen zaizkigun lan askotaz pentsatzeko gelditzeko, baita emakumeok urarekin, itxaropenarekin eta ahaleginarekin pasatzerakoan zabalik uzten ditugun bideak kontatzeko zuei ere.

Eta, azkenik, bakoitzak ibili nahi dituen ibilgu eta bideak idatzi beharko du pasatzerakoan. Baina ez ahaztu hau: egin jaramon beti ibilitako bideei, ez ahaztu inoiz emakumeek munduan hartutako lekuak, zuentzat, emakumeok, eta zuentzat, gizonok, egin baitzuten hori; ikastea, lan egitea, ausartak izatea, ahalegintzea, zuzentzea, erabakiak hartzea, zaintzea, babestea, laguntzea, bizitza transmititzea eta, batez ere, topatu dugun mundua hobetzea. Eta ez gelditzea etxean beste pertsona batzuek zure ordeztu egin dezaten, baizik eta kanpora atera eta zeruan geure izarrak marrazteko plazer itzela aurkitzea.

Pilar Mayo Falque



Irakurri eta berrirakurri

Zergatik da abentura bat arroila jaistea?

Zer ikastetxe motatan ikasi zuen?, nortzuk ote dira «ama» horiek?, zer irakatsi zioten?, eskolak ematen dizkizutenek gauzak erakusten al dizkizute?

Egilea zera dio: «jauzi handiak eta urgeldiak tartekatu egiten ziren ni hazi ahala», Jar al zenezake adibide bana, egoera bana, zure hazkundearena, zure bizitzarena, jauzi handi batekin eta urgeldi batekin alderatu liratekeenak?

Zerrekin konparatzen du ur hotza?

Egilearen ustez, inoiz urrundutako lagunak itzuli al daitezke berriro?, nola azaltzen du hori?

Zure ustez, zergatik erabaki zuen emakumeekin lan egitea?

Zer da inoiz ahazten ez duena?

Garrantzitsua al da beste pertsona batzuek zuk baino lehen egiten dutena? zergatik?

Sostengatzen
duen
lurra



Curriculum

Teresa Aranaz Jiménez

Barasoain, 1961.

Lau ahizpatan bigarrena da. Senarrarekin bizi da eta Marioren, Albertoren eta Iñigoren ama da.

Pedagogiako lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Bertan aritu zen bi urtez bekadun gisa. Isterria izeneko Hezkuntza Bereziko irakasle izan da.

Hainbat elkartetan konprometitu da oso gaztea zenetik. CDN alderdi politikoaren hezkuntza arloa koordinatzen du.

Lau urtez Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea izan zen. Gaur egun Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusia da.

Hona hemen guztiz beharrezkoa den ipuina, izan ere lurraz aritzen baita, lur apal eta umilaz, gauza guztiak sostengatzen dituen lurraz. Iluntasunaren osteko eguzki argitasunaz ere aritzen den ipuina.

Arroila zoragarria jaitsi dugu, ur geldoetan murgildu gara, urruneko tokietara joan gara, korronte handi batean sartu gara. Izokin emea gustura dago ibaian murgilduta, zuhaitzak jatea lortu du eta behar dituen elikagaiak eskuratu ditu, tomatea hain dago lodi eta urez nahiz azken aurreko ipuineko eguzki argiaz ase, ondu eta puztu egin baita eta gorri kolore bizia hartu baitu.

Nire herrian urtero, lehiaketa batean neskato bat erregina izendatzen zuten eta gainontzekoek koroatzen zuten bitartean, abestu egiten zioten.

Herriko zabuan eserita nengoen beste neskatoek paperezko koroa bat jarri zidatenean; ileari helduta geratzeko belarrien atzetik zihoazen kako batzuekin heldu zidaten. Koroa ongi jarri nuenean, zabu zaharraren bi sokei tinko eutsi eta pertsona garrantzitsu bat nintzela amets egin nuen.

Nire lagunei zabuan gogor bultzatzea gogoko nuen, horrela oso gora igotzen zirelako. Mantso bultzatzen hasten nintzen, baina azkenean, altueraren ondorioz lagunek sentitzen zuten bertigoa eta aurpegian jotzen zien aire freskoa, nik ere sentitzen nuen.

Oso gustuko genuen sentsazio hori eta barrezka eta oihuka aritzen ginen.


Nire txanda zenean, zabuan nire kabuz **ibiltzea** gustatzen zitzaidan. Gogor eragitea eta ahalik eta gorago igotzea gustuko nuen. Horretarako, gauza bera egiten nuen beti: oinak atzetik aurrera eta aurretik atzera mugitu, gorputza soken artean atera, aire freskoa sentitzeko aurpegia gora begira jarri eta azkenik, beheraka jausten nintzen sokek dar-dar egin arte.

Lagunek haiek bultzatzeko nuen indarra eta energia gogoko zuten eta ni atsegin osoz egiten nuen.

Betidanik gustatu izan zait laguntzea, proiektu berriak bultzatzea, nire energia besteengan agortzea. Energia horrek ere, bestelako gauzak egitera bultzatzen ninduen eta pixkanaka-pixkanaka nire lanean zeregin interesgarriak eta ardura handikoak hartuz joan nintzen.

Lehiaketa egun horretan, airea bereziki freskoa nabaritu nuen, sokei tinko eutsi, bi hankak batera atzera mugitu eta oso gora igo nintzen. Zabuaen barra baino gorago igo nintzela diote. Nik ordea, beste zerbait bilakatzen nintzela gogoratzen dut bakarrik eta bat-batean... lur azpian nengoen lur bihurtuta! Eta urrunean lagunak oihuak entzuten nituen.

Nire ingurura begiratu eta iraganbide handiak, kobazuloak, lakuak eta zomorro ugari ikusi nituen. Aurpegia lokatzez zikinduta zeramaten eta




harridura aurpegiarekin so egiten zidaten. Hartutako kolpearengatik koroa okertuta nuela konturatu nintzenean, kakoekin ongi heldu nuen nor nintzen jakin zezaten.

Agur egin zidaten eta gorputza minduta nuen arren, lanean jarri ninduten. Lan asko zegoen egiteko eta denborarik ezin genuen galdu.

Eta hala zen, toki hartan ez zegoen atsedeen hartzeko astirik. Batzuek zuhaitzak ez erortzeko sustraiak sostengatzen zizkieten, beste batzuek baratzeetara ura eramaten zuten eta harritxoak kentzen zituzten ura ez pilatzeko. Beste batzuek aldiz, zizareak lurrian sartzen zituzten lurzoruak aireztatzeko. Onddoak, belar txarrak, hosto lehorrak... bakoitzak bere zeregina zuen.

Inurriak inurritegian lanean aritzen ziren, satorrek bideak egiten zituzten, larbek lo egiten



zuten, arrautzek itxoin egiten zuten eta ni laster ulertu nuen urre koloreko paperezko koroa buruan eramatea ez zela nahikoa.

Zuzendari lanak ahalegina dakar berarekin, ardura, konpromisoa, ikasketa eta lan ordu asko.

Lehenik eta behin, inor ez erortzeko, zabuak azpitik sostengatzea bururatu zitzaidan eta futbol zelaietako ateein gauza bera egin nuen. Zuhaitzak, loreak, etxeak, zubiak eta abar ongi sostengatuko nituen.

Zein ongi nengoen han azpian! Hainbeste zegoen egiteko!

Zertan aritu ote nintzen ni pentsatzen goian jolasten ari nintzen bitartean? Eta zein gutxi nekien gauza gehienei buruz!

Ura pilatzen zenean filtrazioa erraztu behar zela ikasi nuen, bestela larbei flotagailua jarri ezean, intsektuen arrautzatxo guztiak ito egingo zirelako.

Bestalde, sustrai inbaditzaileak mozten ez bagenituen zuhaixka ahulenak estutuko zituztela frogatu nuen.

Baratze, parke edo hiri baten antolakuntza goitik iruditzen duena baino konplexuagoa eta dinamikoagoa zela ikasi nuen. Eta ikusi ahal izan nuenez, izaki txikiak ere garrantzi handia zuen.

Baina ez pentsa han azpian dena ona zenik. Onddo parasitoak zeuden, beste izakiak bultzatzen eta menperatzen zituzten izakiak, haien inguruan inor hazten uzten ez

dutenak. Beste batzuk ordea, hazi egiten dira eta haien inguruan hazten uzten dute, beste espezie batzuk agertzeko. Azken mota bat ere bazegoen, beren buruak eramaten uzten zutenak eta lurrak sostengatzen ez bazituen, galdu egiten zirenak.

Oso gutxi nekienez, buru-belarri jarri nintzen nire burua prestatzen; gizarte eraginkor harentzako probetxuzkoa izan nahi nuen.

Ikasten nuen heinean, nik neuk nuen indarra eta boterea sentitzen hasi nintzen eta jada ez nuen goizetan koroa jarri eta kakoekin heldu beharrik. Nuen botereak eragin handiagoa zuen urre koloreko kartoi mehe hark baino.

Lurra, lurzorua, onddoak, sustraiak, belarra eta abar ongi ezagutzen nituenean, zarata eta argi indartsu bat nabaritu nuen eta norabide hartara so egin nuenean... eguzkia!

Hainbeste denbora daramat hemen eta betazalak hain pisutsuak nabaritzen ditut, argi honek ez didala ongi ikusten uzten, itsutu egiten nau...

Ahalegin handia egin ondoren, begiak irekitzen ditut eta kalea, jendea eta abar ikusten ditut...

- Zer egiten dut hemen? -galdetzen diot nire buruari.
- Urrun eta hurbil joan zinen eta ez dakigu zer gertatu den zure koroarekin, zimurturik dago.

Koroa esku artean hartzen dut; oraindik ere lokatzez beteta dago eta ertzak tolesturik dauzka.

- Eskerrik asko -erantzuten diet- dagoeneko ez dut behar.

Oso lan interesgarria dut, ardura handikoa. Etxean ere, nire mutil-lagunak eta biok bakoitzak hazteko behar duen tokia izan dezan eta gure seme-alabak hazteko lur egonkorra izan dezaten ahalegintzen gara.

Badakit nik bakarrik ez dudala mundua bidezkoagoa eta solidarioagoa bilakatzeko behar den indarra. Baina ongi ezagutzen dut zapaltzen dugun, sostengatzen eta laguntzen gaituen, bizitza ematen digun, loreak eta zuhaitzak hazten direneko eta bideak nahiz ura iragaten deneko lurraren zati handi bat.

Ezagutzen ditut segurtasunez eraikitzen eta eskoritzen laguntzen duten lanak eta badakit bakoitzak bere zeregina egiteko tokia uztea eta laguntza ematea beharrezkoa dela. Modu horretan, sustraiak indartsuagoak hazten dira, urrunago iristen dira eta lurra osasuntsuago dago.

Horregatik, lurrean hazten direnentzat eta bereziki beste emakume batzuk hazteko, lurra atseginagoa eta seguruagoa egiteko erronka hartu dut niregain -beste pertsonen laguntzarekin, noski-. Dudan indar eta energia guztia jartzea erabaki dut emakumeak ikusezinak ez izateko eta onddo parasitoek suntsitu ez ditzaten. Modu horretan, aukeratzen duten bidetik erabakitzen dutena izatera helduko dira.

Horretaz gain, erabaki dut dudan zuzendari nagusi kargu berri hau baliatuta, zapaltzen dugun lurra pertsona bakoitzak bizitzeko eta ikasteko behar duen tokia bihurtzen lagunduko dudala.

Teresa Aranaz Jiménez

Irakurri eta berrirakurri

*Zabuan ibiltzen zarenean (edo zinenean) zer zenuen nahiago, norbaitek zu bultzatzea ala zure kabuz ibiltzea?
Eta egileak? Zergatik?*

Behin lur azpian, zergatik jartzen du ongi koroa?

Egileak azaltzen dituen lur azpiko animalietatik zeintzuk ezagutzen dituzu?

Zein ezaugarri ditu zuzendari lanak?

Lur azpian zegoenean, ikasi ala irakatsi al zuen?

Zer ikasi zuen lur azpian?

Zenbat izaki mota aurkitu zituen lur azpian?

Zergatik ez du koroa jarri beharrik lur azpian bizi denean?

Berak bakarrik zerbait egin dezakeela uste al du?

Zer egin nahi du eta nola?



Basoko

sorginak.



Ekiteko

sorginkeria.



Curriculum

Teresa Osés Turrillas

Kadizen jaio nintzen, 1960ko urtarrilaren 10ean. Han bizi izan nintzen 5 urte bete arte, gurasoak jaioterrira (Azkoien, Nafarroa) itzuli arte alegia.

Eskolan gutxi ibilia naiz. 14 urte nituela eta eskola-graduatu titulua sakelan, lanari ekin nion AZKOYENen. Enpresa horrek hainbat produktu saltzeko makinak egiten zituen. Enpresaren sortzaileaz mintzo naiz nire ipuinaren hasieran.

12 urtez aritu nintzen zenbait lanetan Azkoyenen, elektronikako eta mekanikako osagaiak egiten edo erosketari departamentuan laguntzen, adibidez.

24 urterekin ezkondu eta 27rekin, senarrarekin batera, gure enpresa sortu genuen, BOBINADOS OSÉS izenekoa. 20 urte hauetan bertan egin dut nire enpresa lana.

Enpresa handitu eta pertsona gisa ere aurrera egin dut eta bi seme zoragarri izan ditut, Iñigo, 19 urtekoa eta Mikel, 13koa, enpresari beste izen bat jarri ziona: “BOBIS”. Horrela deitzen diogu guk.

Gure jarduera nagusia baztertu gabe, orain dela 3 urte beste enpresa bide bati ekin genion, etorkizuna prestatu eta “ezagupenaren garaia” deitzen diren denbora berriei egokitzeko.

Horrela sortu zen Osés RFID enpresa. Haren kudeatzailea naiz orain. Ikerketan, garapen berrikuntzan eta marketinean dihardugu batez ere. Enpresa jarduerari ekin nionetik berealdiko garrantzia eman diot PRESTAKUNTZARI eta unean-unean lanean behar nituen tresnak nireganatzen saiatu naiz.

Oso maite ditut kirolak eta haietan aritzea. Gainera, azken urte hauetan benetako grinaz irakurtzen dut, semeen adinagatik niretzat denbora libre gehiago baitut.

Azkenik, esan nahi dizuet esaldiak hainbeste gustatzen zaizkidala, non bizitza, lana, pertsonak ulertzen laguntzen didatenak koaderno batean idazten ditudala. Bakoitzean bada ezagupen, maitasun, atsekabe, egia eta abarren zer edo zer. Azkenaldi honetan gidari ditudan esaldiak:

“Ideia berritzaile bat baino zerbait hobea badago: errealitate bihurtzea”

“Ez dago deus geldiezinagorik ordua ailegatu zaion IDEIA baino”

UF! bazen garaia, ipuin hauetan sorginik ez zela egongo pentsatzen hasia nengoen, hau sustoa!

Egia esan, dagoeneko tomatea, ardiak eta neskatoak oso kezkatuak zeuden. Baina hala egon ez daitezen, hurrengo istorioan ez dago sorgin bat bakarrik, sorgin sorta bat baizik. Sorgin hauek hariletik tira eta tira aritzen dira kontakizunaren aria eginez.

Duela denbora asko, herri txiki nekazari batean pertsona talde bat bizi zen. Orduan "Asmatzaileak" izenarekin ezagunak ziren eta gaur egun "Berritzaileak" deitzen zaie. Bada, pertsona talde horiei pertsonen bizitza erraztuko zuten makinak eraikitzea bururatu zitzairen.

Hasierako ideia horren ondoren, beste hainbat pertsona asmatzailearen, berritzailearen, ideiak etorri ziren eta herri hura, nirea, -Azkoien- industria herria, bilakatu zen. Bertan, beste gizon eta emakumeok gure enpresa propioak sortuz joan ginen.

Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen naiz hartaz guztiaz, baina dagoeneko hogeitaz igaro dira barneko indar batek? Ilusio batek? Eromen batek?...? bultzatuta senarrak eta biok bizitzan ABENTURA berri bati besterik gabe ekin genionean. Eta hala da, bai, enpresa bat sortzea benetan ABENTURA IZUGARRIA DA.

Txikitatik, nire enpresa propioa edukitzeko ideia oso erakargarria egiten zitzaidan. Nire barnean denbora luzez

sortuz joandako irrika zen eta 1987ko urtarrilaren 1ean, Bobinados Osés delako enpresaren jaiotzarekin irrika egia bihurtu zen.

Dena den, ipuin bat kontatu behar dizuedanez, jakin behar duzue deskribatu dizuedan herri hartan sorginak zeudela. Batzuek aurrera jarraitzeko kemena ematen zidaten, egunero konfiantza ematen zidaten, baina sorgin gaiztoek, egon bazeudela, eta oso gaiztoak bide nabar, ahalegin guztiak egiten zituzten guk amore emateko.

Lehendabizi, **Beldurraren Sorgina** etorri zen, aurrera ez jarraitzeko izutzen gintuena.

Hark ezer lortu ez zuenez, **Zorren Sorgina** bidali zuen eta hau benetan izutzekoa zen. Beti gogoratzen zigun zein zaila izango zen enpresarekin hasteko eskatu genuen dirua itzultzea, zor guztiak ordaintzea. Bizitza zail egiten ari ginen eta beste hainbat gauza... gogoratzearekin bakarrik dardarka hasten naiz, a ze beldurra izan genuen!

Benetan izuturik geundenean, **Poztasunaren Sorgina** agertu zen eta galdetu zigun: zer duzue, zer dela eta izu aurpegi horiek? Hasieran, ez genion jaramon handirik egin iruzurretan ari zela uste genuelako, baina pixkanaka-pixkanaka harengan konfiantza izaten hasi ginen.


Poztasunaren Sorginak opari bat ekarri zigun eta oparia bizirik mantentzea norberaren ardura zen arren, enpresaria izateko bidean lagungarri izango zitzaidan. Oparitu ziguna ILUSIOA izan zen.





ILUSIOA enpresa propioa sortzeagatik, enpresa handitu arazteagatik, ongi egindako lanarengatik, egun on eta txarrengatik. Sorginak esan zigunez ilusioa bizirik mantentzen bagenuen, momentu zailenetatik ere zerbait ikasiko genuen.

Eta hala egin genuen, ikasi egin genuen eta urte hauetan gurekin egon diren beste pertsonekin batera egin genuen, eta hazi garen pertsona guztiekin. Horiekin guztiekin, momentu benetan zoragarriak bizi izan ditugu, momentu zoriontsuak eta baita arrakastatsuak ere. Orduan, pertsonaia bitxi bat agertu zen: **Orainaldiko Sorgina**.



Sorgin hau ez da ez ona ez gaiztoa baina belarrira esaten dizu... Ongi zaude horrela... ez du merezi gauzak aldatzeak... begira zein ongi doakizun... zertarako konplikatu hain ongi doakizunean... eta pixkanaka bere musikarekin eta hitz goxoekin liluratzen zaitu eta zure buruarekin nahiz enpresarekin ongi sentitu arazten dizu.

Bake horretan nengoela, ibai-ertzetik paseatzera irtetea bururatu zitzaidan, momentu batez munduaz eta isiltasunaz gozatzeko. Baina egun horretan, ez zegoen isiltasunik, arrainek eta txoriek beraien artean hitz egiten zuten eta so egiten zidaten, bat inguratu eta ondorengoa esan zidan arte:

- Teresa, **Etorkizunaren Sorgina** zure bila ari da eta ibaian zeundela esan diotenez, berarengana eramateko esan digu.




Haren ondora iritsi nintzenean, sekretu bat esan behar zidalako deitu ninduela esan zidan. Oso pozik jarri nintzen **Etorkizuneko Sorginak** halako gauza garrantzitsua nirekin konpartitu nahi zuelako. Samurtasunez so egin zidan, irribarre egin eta sekretua esan zidan:

- **Etorkizuna momentu ahulenetan eskura ezina da, ikara dugun momentuetan ezezaguna da eta ausart sentitzen garenean aukera bat da.**

Enpresan ausartak ginen! Horregatik ERABAKI GENUEN etorkizuna **aukera** bat bezala hartuko genuela; aurrera jarraitu beharko genuen, hobetuta eta enpresan makina eta zerbitzu berriak sortuta.

Itzultzean, mundu guztiari kontatu nion. Inor ez zen harritu, ezin genuen bertan gelditu. Eta berriro gauza berriak, berriro sorginen bisitak... baina orain indartsuagoa naiz, jakintsuagoa. Talde bat gara eta dagoen arriskua banatu egiten dugu, bata besteari babesa ematen diogu.



Enpresa hobetuz eta gauza berriak asmatuz doa: orain Osés RFID dugu izena sorginak MAITAGARRI bihurtu direlako eta momentu on eta txarretan laguntzen gaituztelako.

Hala ere, atzera begiratuta beti uste dugu **sorginik okerrenea beldurra dela!**

Eta hau hala bazan edo ez bazan istorio honek izango du oraindik zer esan.

Teresa Osés Turrillas



Hegaldi

eskolak



Curriculum

Victoria García Arlegui

*Suitza, 1973. Haurtzaroa eta nerabezaroa
Tuteran. Iruñean bizi da. Alaba bakarra.*

*Psikologiako lizentziaduna. Giza
Baliabideetako Masterra eta Business
Administration-eko Masterra (MBA).*

*Internacional Coach Federation erakundeak
(ICF) emandako Coach ziurtagiria.*

*Prestakuntza sakona programazio
neurolinguistikoa, pertsonen organizazioan
duten garapenean eta management arloan.*

*6 urtez aritu naiz Empresa Universidad de
Navarra Fundazioan, prestakuntzako arduradun
gisa. Gero Nafarroako Emakume Enpresaburu
eta Zuzendarien Elkartean (AMEDNA) sartu
nintzen, proiektuetako arduradun bezala. Gaur
egun Negozioen Coachingaren eta Coaching
Exekutiboaren arloetako enpresa bateko (Crecento
- Action Coach) bazkidea naiz, eta horri esker nire
ametsetako bat ari naiz betetzen. Enpresan baditut
beste 3 bazkide eta izugarri aberasten ari naiz haien
ezagupenei, jakinduriari eta giza kalitateari esker.
Horretaz gain, asko gozatzen naiz haiekin egunero.*

*Gustukoa dut hitz eta barre egitea,
pertsonak ezagutzea, irakurtzea, musika
aditza, zinema, pentsatzea...*

Amaiera iritsi da. Eta hain justu, Nafarroan bukatzen da. Amaiera ona da ondokoak agertzen direlako: gauza oro eusten eta sostengatzen duen lurra, iragaten eta pilatzen den eta bizitza ematen duen ura, animaliak eta landareak eta landatik kuxkuxean dabilen neskatoa. Hor da ere uhandre jakintsua eta berriz ere, beharra, irrika eta hegan egiteko nahia.

Ipuin hauek irakurri ondoren, zerura begiratzen baduzue, litekeena da jira biraka hegan dabiltzan tximeletez inguraturiko uso eta mariorratza bat ikustea eta atsedean hartu nahi badute adarrak zabalik dituen pagoa ere hantxe ikustea, edota istorio hauek nahiz bestelakoak kontatzen jarraitzen duten liburuen alfonbra amaigabe bat begizatzea. Egon zaitezte adi.

Baliteke, zuen parera begirata, emakume ausart asko ikustea, bakoitza bere lanpostuan bizitza errazagoa eta zoriontsuagoa egiten dizuete. Agian, horien artean zuzendari hauetariko bat dago.

Ipuin hau Nafarroako Erriberako urmael txiki batean hasten da.

Urmaelean bizitza oso antolatuta dago eta nahiz eta kanpotik ikusita ezer ez dela gertatzen iruditu, bertan harreman biologikoen oreka izugarria dago, benetan esaten dizuet!

Lehenik eta behin, nire burua aurkeztuko dut: mariorratza naiz eta oso harro nago naizenaz.

Nahiz eta iruditu ez, urmaeleko ia biztanle gehienok gure mundu begetalari esker bizi gara; horrek sostengatzen, babesten eta elikatzen gaituelako.

Egia esan, ez dakit zergatik kontatzen dizuedan hau guztia, ziur nago badakizuela, baina askotan nire etxea oreka biologikoaren adibide bikaina dela esaten dudanean gizaki askok... eta beste animalia batzuk nitaz barre egiten dute.

Bada, bai, ur mantxa txiki batean bizi diren edozein espezieko txikiena bazara, zapaburuak eta ur-arkakusoek materia begetala nola jaten duten ikusten duzu eta era berean, izaki horiek ni bezalako beste batek nola jaten dituen. Beno, esan ohi denez, arrain handienak txikiena jaten du...

Hala ere, banekien larba txiki bat izan arren, babesturik nengoela. Zelatan eduki nezakeen edozein arriskutik babesturik sentitzen nintzen. Ama, aita eta mariorratz guztien erregina zen amona nitaz arduratzen ziren! Ez nuen anai-arrebarik, beraz, arreta eta zainketa guztiak niretzat ziren... eta batzuetan gehiegitxo ziren, ijiji... Gauza asko egiten nituen urmaelean: beste larbekin jolasean aritzen nintzen, hainbat gauza ikasten nituen. Aitak zioen bezala, egunen batean bakarrik hegan egiteko gai den mariorratza izan nahi banuen, jakin egin behar nuen... baina guzti horren gainetik, begira, begira eta begira egoten nintzen nire mundu txikitik helduen mundura eta galdera ugari egiten nizekion nire buruari:

Zergatik hazten da hainbeste udan berde kolorekoa? Zergatik jaten ditugu beste zapaburuak? Batzuetan, nire buruari galdetzen nion zergatik obeditu behar ote nuen beti eta zergatik ezin nintzen nire lagunekin joan, haiek egiten zuten antzera, beste toki batzuk beren kabuz ezagutzera.

Egun batean, izakitzar bat uraren ertzaren ondoan eseri zen eta ezezagunak egiten zitzaizkidan soinuak egiten hasi zen.





Lagunek igerian uraren hondora eramán ninduten baina ni kanaberen artean ezkutatuta nengoela ez nion gora begiratzeari uzten. Lagunek tira egiten zidaten... baina ni ez nuen joan nahi.

Neskato bat da! -esan zidan sarritan bisitan etortzen zitzaigun uhandre jakintsuak.

- Eta zer nabaritzen da kanpoan, uhandre? Zuk jakinen duzu, sarritan irteten baitzara uretatik, galdetu nion.
- Ezer onik ez hain larba txiki batentzat, erantzun zidan. Zure txanda iritsiko zaizu, hazten jarraitu behar duzu eta kanpora ateratzeko prestatzen jarraitu behar duzu. Berriro entzuten nuen esaldi hura, eta oraingoan nire lagun uhandreren ahotik... antza, izaki heldu guztiek ez zuten uste kanpora ateratzeko prest nengoenik...

Hala ere, ezin nuen kanpoko mundu horren ideia burutik kendu eta ia obsesio bihurtu zen.

Mariorratzek bost urtez itxoin egin behar dutela diote kanpora atera ahal izateko. Niri bost urte haiek oso, oso, baina benetan oso luzeak iruditu zitzaizkidan.

Duela hilabete eskas, oso arraro sentitzen nuen nire burua, barrutik sentazio berriak nabaritzen nituen, gorputzak min egiten zidan -gripe arraro hura izan nuenean baino askoz gehiago- baina oso azkar gertatu zen dena, hogeí minutu izugarriren buruan, azala, etxea eta aurpegia bertan utzi eta hegan hasi nintzen. Hain ziren ederrak nire hegoak! Eta halako distira nuen!

Baina ez nekien hegan egiten! Edo hori uste nuen... nire txanda iritsia zen, hori nabaritu egiten da; jakingo duzue zuen txanda denean. Nik bakarrik egin behar nuela nabaritzea bezalako sentimendua zen, baina bakarrik diodanean, ez dut esan nahi familia edo lagunak alde batera utzi nituenik, erabakiak nire kabuz hartzen ikasi behar nuela esan nahi dut. Nire kabuz hegan egiten eta erortzen (eta hala gertatu zitzaidan) ikasi behar nuen. Eta ohartarazi ninduten arren, banekien saiatu egin behar nuela eta hainbeste denboran zehar ikasitako guztia praktikan jarri behar nuela. Uhandre jakintsuak zioen, izaki guztiok ikasi egiten dugula hegan egiten ausartzen garenean, nahiz eta saiakera asko egin behar diren eta pixkanaka egin behar den; niri gertatu bezala.

Lehenengo hegaldia porrot hutsa izan zen eta lurrean amaitu nuen; txolarrekume batzuk ez zioten barre egiteari uzten. Berriro saiatu nintzen baina ez nuen lortzen hegoak batera mugitzea.

Okertu egiten zitzaizkidan, pilatu egiten ziren denak; gehiegi nituen!

Tximeletek ere nitaz barre egiten zuten!

Ahaleginaren ahaleginez, indar osoz abiada hartu nuen eta adar bateraino iritsi nintzen.

Lortu nuenean, nekaturik nengoen eta gose nintzen, baina non daude algak? Zer jango dut nik orain?

Ez dakizue zenbat botatzen nuen



faltan nire urmaelean lagunekin bizi nintzeneko epeltasuna...

Orain, aste batzuk daramatzat hegan egiten, ahalegintzen eta pixka bat sufritzen, ez pentsa! Urmaelean ez nintzen kirolaria baina hainbeste entrenatu naizenez, hegan egiten, ehizatzen, beste izakiak harrapatzen eta nire ametsa lortzeko prestatzen aditu bihurtu naiz.

Ez dakit esan dizuedan, baina hori kolorekoa naiz, arrek, urdin kolorekoak direnek, asko so egiten didate eta noizean behin elkarrekin hegan egiten dugu; oso dibertigarria da. Ziur nago egunen batean bidaia luzeago bat eginen dugula elkarrekin.

Denboraldi honetan, urmaelean zenbait gauza aldatu egin dira: txikitan nitaz arduratu zen amona jakintsua asko zahartu egin zen eta agur esan zigun eta orain ama gaixotu egin da. Baina ez zaituztet triste jari nahi, bakarrik esan nahi dizuet orain nire txanda dela ni baino zaharragoak direnak zaintzeko; haiek nirekin egin zuten bezalaxe.

Beno, imajinatu dezakezuen

bezala, bizitzan nire proiektuak ditut. Ez dut soilik apo handi baten jakia izan nahi.

Hegan egiten nire kabuz ikasi nuenez, horri esker, oraindik ikusi ez ditudan (baina irrikatzen nago!) tokiak ikusi dituzten beste mariorratz batzuk ezagutu ditut. Horretaz gain, hegan ikasi izanak, oraindik hegan egiten ikasi ez duten eta erortzeko beldur diren mariorratzak ikusteko aukera eman dit. Niri gertatzen zitzaidan bezala!

Mariorratz emeentzako eskolarik ez dagoenez, trebatzea erabaki dut. Horregatik, urruneko tokietara noa -hegaldi eskoletara- gehiago ikasteko eta besteei irakasteko gai izateko.

Dena den, egia esan behar badizuet, nire ustez, noizbait hegan egin baduzu, hegan irakatsi dezakezu. Oso erraza da:

Konfiantza izan, hegoak tolestuta dituzun arren, hegan egiteko prest daude, kolore distiratsuak dituzte, eguzkitan lehortuko dira eta hegan egingo duzu zure indarrarekin; ziur nago. Eta hori izango da garrantzitsuena, ez du axolako zaila izan bazen edo zer egin ez bazenekien: hegan egingo duzu zuk hala erabakitzen duzunean.

Vicky García Arlegui



Irakurri eta berrirakurri

Animalien bizitza antolaturik dagoeneko beste ipuinen bat ikusi al duzu?

Zergatik zegoen bere buruaz hain seguru?

Mariorratzak jakin-mina al zuen?beste ipuinetan protagonistek, modu batean edo bestean, sentimendu bera al dute?

Zer ziren neskatoak egiten zituen soinuak?

Zer egin behar du hegana egin aurretik?

Nolakoak ziren hegoak?

Hegana egitea erraza egin al zitzaion?

Bidaiatzea gustatuko al litzaioke? nola azaltzen du?

Zer da ezinbestekoa hegana egiteko?

Zertan lan egiten du?

Nola imajinatzen duzu zure bizitza handitzen zarenean? nolako izatea gustatuko litzaizuke?

Emakume ausarten bidea

- Goazen denok elkarrekin esertzera, e, aizue!, zuek ere bai, hainbeste ipuin irakurri ditugu...
- Nik egun asko behar izan ditut denak irakurtzeko!
- Nik ez! Amaren lagunek egindako ipuinak irakurtzea hain... xelebrea egiten zitzaidan!
- Nire izebak ere ipuin bat idatzi du.
- Eta nire amak!
- Eta gero, gainera, pentsatzera!

Zatozte, erne..., entzun azkeneko aldiz, amaitzeko istorio bat besterik ez da, elkarri agur esateko.

Jainkosa jakintsu batek kontatutako istorioa da. Jainkosa honek Helduen Kontseilu Nagusi batean parte hartu zuen behin, eta, bertan, erabaki garrantzitsu bat hartu zuten.

Duela denbora asko, berak kontatutakoa kontatuko dizuet nik orain. Ez joan, entzun. Honela zioen:

Denboren hasieratik, jainko eta jainkosek oso sekretu garrantzitsua zuten ezkutaturik. Eta badakizue zein zen sekretu hori?

Emakume ausarten bidea nola igaro: jakituria eta unibertso botere guztia nahiz zailtasunei beldurrik izan gabe ilusio guztia izateko bidea.

Oso sekretu garrantzitsua zen eta zekienak bere bizitzarekin babestu behar zuen. Bidea unibertso botere guztia aurkitzeko ausarta zenak soilik igaro zezakeen.

Hori bai ardura! Eta noski, imagina dezakezue zein gauza arriskutsua, behar ez zen norbaiten eskuetara iristen bazen!

Jainko jakintsuenek eta jainkosa bidezkoenak Helduen Kontseilu Nagusi bat egin zuten sekretua non gorde erabakitzeko.

- Itsas hondoan -esan zuen lami-jainkosa batek. -Bertan babestuko dugu, ez da erraza bertara iristea, oso sakona da.
- Ez, ez da segurua.

- Bada, mendi altuenean! -esan zuen arrano-jainkoak.
- Mmm. Izan liteke... Ez, hor ere aurkitu dezakete.
- Kobazulo bat? Ez...
- Oihanean. Oso zaila da bertan zerbait aurkitzea, ohikoena da norbera galtzea -esan zuen zuhaitz-jainko batek.

Norberaren bihotza! Gure sekretua
PERTSONA BAKOITZAREN BIHOTZEAN
ezkutatuko dugu.

A zer ideia! Emakume jakintsuenei bakarrik bururatuko zaie hor bilatzea; berezko indarra aurkitzen duten emakume ausartei, beraien sentimenduak errespetatzen dituztenei, entzuten dutenei, mina edo poztasuna konpartitzen dutenei, pentsatzen eta ahalegintzen direnei eta bidea jarraitzen dutenentzat seinaleak uzten dituztenei. Ze ideia ona! Horiek dira emakume jakintsu eta ausartak.

- Ados -esan zuten- bikain.

Eta gau eta egun osoan zehar ospatu zuten. Ez zegoen arriskurik jada, azkenik atsedean har zezaketen. Inork ezingo zuen sekretua lapurtu:

Bere bihotzean bilatzen jakingo zuenak soilik aurkituko zuen sekretua.

Jainko eta jainkosek zuretzat gordetako oparirik handiena:

Hazteko indarra

Bakardadea atsedean hartzeko

Itxoiteko lasaitasuna

Sortzeko irudimena

Ikertzeko jakin-mina

Aukeratzeko ausardia

Ikasteko ahalegina

Ikasketa konpartitzeko

Aurrera egiteko pentsamendua

Sexua nork bere burua aurkitzeko

Lasaitzeko malkoak

Hitza izendatzeko

Maitasuna oparitzeko

Bizitza, hori bera jarraitzeko

Mina baloratzeko

Eta mundua bizitzeko

Dena zure baitan